


# Berrigara



## Dani Laskurain

Pinturak eta grabatuak erakusgai

# OPEL




**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# MATRIKULA ZABALIK



...esan zeuk ere  
**BAi EUSKARARI!**

izena eman

**æk<sup>n</sup>**

Bergaran, AKULU AEK euskaltegia

## Txandakako enpresa injinerutza

**Enpresariekin lanean garatutako  
lanbide proiektua  
Lan kontratua lehen egunetik**

### *Bilera informatiboa*

- Datorren urtarrilaren 29an, ostirala, bilera informatiboa izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 18:30etan Erreminta Makina Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

■ Erreminta Makina  
Institutua  
San Roke auzoa 1  
20870 Elgoibar

■ Tf. 943 74 41 32  
Faxa: 943 74 41 53  
E-mail:  
ingenieria@fmh.es

■ Orduetgia: 8:00etatik  
13:00etara eta  
14:30etatik 17:30etara



**cesi** aquitaine  
poitou-charentes

**1999/2000 ikasturtea**

# Lehiakortasuna ala monopolioa?

Iñigo Urrutia / Kazetaria



**E**rakunde berri bat sortzeko, Santanderrek eta BCHk sinatu berri duten akordioak europar merkatu berriaren esparruan lehiakide izateko neurri aproposa dirudi. Batez ere, kontuan izanik bakoitzak bere aldetik jarduteak masa kritikorik gabe utziko lituzkeela Botin eta Amusategi-ren markak. Akordioa ustekabeen gertatu da, batik bat bazirudielako BBV izango zela horrelako pausoa ematen lehena.

Edonola ere, fusioen pandemia arlo ekonomiko gehienetan globalizazioaren islada bada ere, giza ikuspuntutik aztertuz gero hainbat galdera mahairatzea komeniko litzateke. Besteak beste, langileen babesik eza. Adituek diote-

nez, horrelako fusioen berehalako ondorioa, plantilen murrizketa izaten da sarritan, denetan ez bada. Eta, gainera, frogatzeke dago fusioen estrategiak beti onuragarriak diren.

Bezeroen aldetik ikusita, fusioek merkatuaren eskaintza ahalmena murriztu egiten dute. Kontzentrazioantz daramate. Eta, honek dakarren arriskuak argi aurreikus ditzakegu monopolioak gogoratuz gero.

Lehiakortasuna aipatzen da jendea aspertu arte, baina kapitalismoaren eredu berri honetan, kasinoarena alegia, kapitalen jokabide librean lehentasuna lapurtu dio pertsonen ongizateari. Ala beti izan ote da horrela? **B**

**“Bezeroen aldetik ikusita, fusioek merkatuaren eskaintza ahalmena murriztu egiten dute. Kontzentrazioantz daramate. Eta, honek dakarren arriskuak argi aurreikus ditzakegu monopolioak gogoratuz gero.”**

■ barruan



**Iñigo Herreros**

Gazteen lokalaren proiektukoa

**“Kolektiboen bilgunea izango litzateke aldarrikatzen dugun gazteen lokala”**

8.




**Alvaro Gallastegi**

Pilotari izandakoa

**“Une honetan pilotari profesional oso onak ditugu herrian. Garai ona bizi dugu”**

21.



**Izaro Aperribai**

“Bergara ezagutzen”eko aurkezlea

**“Bergararen gauzarik onena, Santa Marinako erretaula; txarrena, kultur eskaintza eskasa”**

29.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1977.** Urtarrilaren 18an Udalen mugimenduko alkateak Martin Villarekin elkartu ziren Madril-en. Azkoitia, Hernani, Arrasate, Oiartzun eta Bergarako alkateak joan ziren. Hiru orduko bileraren ondoren, Madrilgo Gobernuak ikurriñaren legezko-tzearen berri eman zuen.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 15

11-13-14-29-33-38 (osag.5/itz.1)

#### Astelehena 18

5-32-36-38-39-45 (osag.11/itz.8)

#### Martitzena 19

3-10-32-33-39-44 (osag.35/itz.6)

#### Eguaztena 20

12-27-30-34-37-44 (osag.5/itz.3)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 16

26-28-30-33-37-49 (osag.22/itz.4)

#### Domeka 17 Saritzarra

1-6-10-14-40-41 (osag.38/itz.3)

### ONCE

**Eguakitza 15:** 51.595 (110 seriea)

**Astelehena 18:** 36.742

**Martitzena 19:** 77.994

**Eguaztena 20:** 54.712

## Farmaziak

### Eguakitza 22:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Zapatua 23:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Domeka 24:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Astelehena 25:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Martitzena 26:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguaztena 27:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Eguena 28:


ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

## Ogia

**Domeka 24:** Ogizun.

## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Asteburuan urdinguneak nagusituko zaizkigu; halere, laino batzuk agertuko dira, batez ere goiz partean. Domekan lainoak ugaritzen joango dira. Haizeak hegotik joko du eta tenperaturak gora egingo du zertxobait.

## Ilargiaren aldiak



Ilberri: urtarrilak 17



Ilgora: urtarrilak 24



Ilbete: urtarrilak 31



Ilbehera: otsailak 8

## Eguzkia

Domeka, urtarrilak 24



Sortu: 08:35



Gorde: 18:26

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre


	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 14</b>	10	6	2,3
<b>Eguakitza 15</b>	14	5	-
<b>Zapatua 16</b>	12	6	6,5
<b>Domeka 17</b>	10	5	10,6
<b>Astelehena 18</b>	10	2	-
<b>Martitzena 19</b>	14	-1	-
<b>Eguaztena 20</b>	15	7	-

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Ankalaru

Txanka mehea; hanka meheak dituen. Ankame, txankame.



JOSU OKINA



**Ander Ezenarro**  
Urtarrilaren 20an  
19 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Sonia Varela**  
Urtarrilaren 23an  
18 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaia.



**Mutxi Pan**  
Urtarrilaren 18an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Lagunak.



**Jokin Alfaro**  
Urtarrilaren 24an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Peio.



**Oscar Rueda**  
Urtarrilaren 18an  
20 urte. Urte askotarako!  
Koadrilakoak eta etxekoak.



**Kelly Valor**  
Urtarrilaren 24an  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

## zorion agurrak




**Koldo Muguruza**  
Urtarrilaren 13an  
39 urte. Urte askotarako!  
Emaztea, Julen eta Eneko.



**Aitor Miner**  
Urtarrilaren 24an  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Kutxi**  
Urtarrilaren 14an  
27 urte. Urte askotarako!  
Amilotokeko lagun on bat.



**Sergio Gallardo**  
Urtarrilaren 24an  
24 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Mario Eugenio**  
Urtarrilaren 18an  
27 urte.  
Urte askotarako!  
Lagunak.



**Cristina Manóvil**  
Urtarrilaren 12an  
18 urte. Urte askotarako!  
Kosonile eta M. Jose.



**Xabier Albisua**  
Urtarrilaren 19an  
28 urte.  
Urte askotarako!  
Familiak.



**Mari Kontxi Garaiondo**  
21ean 51 urte. Urte askotarako!  
Zura admiradoreak.



**Ainhoa Bikuña**  
22an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Aritz, Xabi, Jimena eta Paulo.



**Mikel Unibesaio**  
28an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Aritz, Xabi, Jimena eta Paulo.

Hurrengo alean, Berrigara 353, **URTARRILAREN 29a** eta **OTSAILAREN 4a** **BITARTEKO** pertsonen zorion agurrak bakarrik argitaratuko dira.



**Borja Pueyo**  
Otsailaren 1ean  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iosu Pueyo**  
Urtarrilaren 15ean  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Iosu eta Ion.



**Jabier Arizaleta**  
Urtarrilaren 15ean  
14 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Mikel Igartua**  
Urtarrilaren 9an  
10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aitzol Gutierrez**  
Urtarrilaren 13an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Mikel.



**Bego Zubizarreta**  
26an urtebetetzea.  
Gogoratzten urte  
haiek? Urte askota-  
rako! Edurne.



**Karlos Lasa**  
Urtarrilaren 16an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Asier eta Ainara.



**Aitor Jauregi**  
Urtarrilaren 8an  
10 urte.  
Urte askotarako!  
Familia.



**Julen Garmendia**  
Urtarrilaren 19an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Nagore Odriozola**  
8an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta  
beheko pisukoak.



**Mikel Urrutia**  
Urtarrilaren 24an  
9 urte.  
Urte askotarako!  
Familia.



**Irati Rodriguez**  
Urtarrilaren 23an  
3 urte. Urte askota-  
rako! Gurasoak eta  
aitxitxa eta amama.



**Elena Egiluz**  
Urtarrilaren 13an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Kiroldegiakoak.



**Eli Arriaran**  
Urtarrilaren 17an  
21 urte. Urte askota-  
rako! Koadrilakoak  
eta lehengusina.



**Izar Rodriguez**  
Urtarrilaren 14an  
21 urte. Urte askota-  
rako! Manolo eta  
koadrilakoak.




**Alexander  
Narvaez**  
Urtarrilaren 21ean  
15 urte. Urte askota-  
rako! Etxekoak.



**Nerea Sanz**  
Urtarrilaren 22an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Aitona-amonak.



**Ane Sanz**  
Urtarrilaren 22an  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Aitona-amonak.



**Erik Polanco**  
Urtarrilaren 23an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Lehengusuak.




**Ramon Polanco**  
Urtarrilaren 25ean  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Ilobak eta semea.

**ESKER ONA**

## Emiliano Horrillo Caballero

Antzuolan hil zen  
1999ko urtarrilaren 19an,  
76 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko sendikoen izenean.*



■ **jaio t a k o a k**

**BERGARA**  
**Josu Rafael Berasategi Oianguren**  
Urtarrilak 7  
**Ana Fuentes Horrillo**  
Urtarrilak 14

■ **h i l d a k o a k**

**BERGARA**  
**Julia Gallastegi Maiztegi**  
Urtarrilak 13, 89 urte  
**Angeles Elorza Goronaeta**  
Urtarrilak 14, 72 urte  
**Jose Quintas Gonzalez**  
Urtarrilak 15, 72 urte  
**Angel Unamuno Ezpeleta**  
Urtarrilak 17, 72 urte  
**Mariano Ormazabal Erostarbe**  
Urtarrilak 17, 80 urte  
**Bernardino Ormaetxea Nieva**  
Urtarrilak 19, 89 urte  
**Concepcion Arizaga Larreategi**  
Urtarrilak 20, 82 urte  
**ANTZUOLA**  
**Emiliano Horrillo Caballero**  
Urtarrilak 19, 76 urte



**M. Jesus Azkarate-Askasua**  
Abenduaren 21ean  
urtebetetzea. Zorionak!  
Etxekoak.



**Gouri Azkarate-Askasua**  
Urtarrilaren 17an  
3 urte. Urte askota-  
rako! Etxekoak.



**Deiane Perez**  
Urtarrilaren 12an  
7 urte. Urte askota-  
rako! Aita, ama eta  
Hodei



**Karlos Azkarate-Askasua**  
Abenduaren 31n  
30 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Eliene Sasieta**  
Urtarrilaren 22an  
3 urte.  
Urte askotarako!  
Ama eta Ariana.




**Eugenio Sasieta**  
Urtarrilaren 25ean  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Ama eta Ariana.



**Ion Larrañaga**  
Urtarrilaren 27an  
20 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



**Ainara Sanchez**  
Urtarrilaren 20an  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



**Aitxitxa Juan**  
Urtarrilaren 17an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Familia.



**Markel Garmendia**  
Urtarrilaren 24an  
urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Isabel Sierra**  
Urtarrilaren 27an  
36 urte. Urte  
askotarako! Miren,  
Aitor eta Ander.



**Maddi Txintxurreta**  
28an 4 urte. Urte  
askotarako!  
Gurasoak eta Maite.

## ANTZERKIA

► **"Xola eta lehoiak"**  
umeentzako antzerkia Por Pol antzerki taldearekin bihar, zapatua, 17:00etan Elorrioko Arriola aretoan.

## MUSIKA

► **Maixa eta Itziar** gaur, eguakitzan, 22, 22:30etan Elorrioko Arriolan.

► **Edurne eta Josune** bikotea eta **Aitzol Mujika** bihar, zapatua, 18:30etan Osintxuko Asadorean.

► **Angra eta Stratovarius** taldeak domekan Jam-en, 20:00etatik aurrera.

► **Malcolm Scarpa eta Dina Flow** domekan Soraluzeke Gaztelupe tabernan, 22:00etan.

## ERAKUSKETA

► **Dani Laskurainen** mar-go erakusketa Nahikarin.

► **German Amurrioren** eskultura eta zeramika lanen erakusketa Donostiako Kutxa Fundazioan (Arrasate 12) urtarrilaren 31ra arte

## IKASTAROK

► **Arrasate Yoga**

## JAIK

### "Dia de las migas extremeñas"

**Noiz:** domeka goizean

**Non:** San Martin plazan eta Udal Pilotalekuan

Arrasateko Extremadurako Kultur Zentroak, Bergarako Udalaren laguntzaz antolatutik, "Dia de las migas extremeñas" jaieguna ospatuko da domekan. Arrasateko Extremadurako Kultur Zentroa 1991n eratu zen eta bere zeregin nagusietako bat kultura extremadurarra zabaltzea da. Urtean antolatzen dituzten ekitaldietatik "Dia de las migas extremeñas" delakoa da beharbada arrakastatsuen. Aurreko edizioetan Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ospatu izan da eta aurtun Bergarara ekartzea egokitzat jo dute. Beti ere negu partean ospatzen da jaieguna, "migak" (Extremadurako plater tipikoa) urte sasoi honetan jaten direlako gehienbat. Urdaia, pipar gorria eta ogiarekin egiten da eta domekan Plazara joaten direnek dastatu

ahal izango dute. Horrez gain, Extremadurako produktuak (urdaiazpikoa, gazta, ardoak, goxokiak, etab.) ere izango dira salgai eta Corazon de Encina taldeak hango kantuak eta dantzak eskainiko ditu, 11:30etan eta 13:30etan Plazan.

Bestalde, Musika Eskolak "Miserable-ak" Arrasaten antzestu zuenean, Extremadurako Kultur Zentroan afaldu zuten ikuskizuneko partaideek. Bandak domekan 12:30etan Frontoian eskainiko duen kontzertuan, orduan jasotako harrera eskertu nahirik, Extremadurako ereserkia joko du Corazon de Encina osatzen duten kantuariak eta dantzariak bertan izango dira. Aurretik, Bandak honako piezak joko ditu: Donostia (Peña eta Goñi), Rienzi (Richard Wagner), El asombro de Damasco (P. Luña) eta The godfather saga (Nino Rota).



Corazon de Encina taldea Plazan izango da domekan.

**Elkartearen ikastaroak:** yoga hastapena, gorputzburua eta hunkipenaren integrazioa yoga psikofisiologikoaren (hatha-yoga) bidez eta topaketa pertsonala. Argibideak: 943 79 35 76.

► **Reiki ikastaroa**

Elgoibarren urtarrilaren 30 eta 31n. Plaza mugatuak. Argibideak: 943 74 25 34.

## LEHIAKETAK

► **Bergarako Orkestra Sinfonikoak anagrama**

**lehiaketa** deitu du. Irabazleak 25.000 pezeta jasoko du. Lanak DIN A4 edota DIN A3 orrietan jasoko dira urtarrilaren 29ra arte Banda eta Orkestraren entsaio gelan (Musika Eskola. Espoloia, z/g. 20570 Bergara). 943 76 57 80.

## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## Deco-Textil ZANGITU

Etzerako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, eta abar.

**Herrilagunak 3-5**  
☎ 943 76 08 69

## KONDE



Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57

## DEIAK

► **Odol ateraldia** eguazte-  
nean, hilak 27, 18:30etan  
Seminarioan.

► **Gure Ametsa** elkarte-  
an, Patxi Arakama Katealde  
artisansu produktuen kidea-  
ren eskutik, ahate produk-  
tuen gaineko hitzaldi-dasta-  
keta izango da eguenean,  
hilak 28, 19:30etan.  
Ondorengo afarirako izen-  
ematea (2.500 pezeta) aste-  
lehenera arte zabalik. Plaza  
mugatuak.

► **Pol-Pol Mendizale**  
Taldeak Formigalera eskia-  
tzera joateko irteera iragarri  
du urtarrilaren 30 eta  
31rako. Alojamentua  
Formigal Hotelean edo  
Midi apartamentuetan izan-  
go da eta prezioa 14.000  
edo 13.000 pezetakoa da.  
Argibideak: 943 76 48 51.

► **Pazkuetako Bidebe-  
rriko kontzertuak** antola-  
tzeko bilera otsailaren 2an,  
19:30etan Kultur Etxean.

► **Jarduneko gaztetxo-  
en** iteera Gasteizera, patina-  
tzera, datorren zapatuan,  
hilak 30. 943 76 36 61.

► **Senideak eta**  
**Amnistiaren Aldeko**  
**Batzordeak** herritar guztiei  
dei egiten die, presoen eus-  
kal herriratzeari buruzko  
bilerara, hilaren 29an,  
19:30etan UNEDen.

## JAIK

► **San Pauloak Uberan.**  
Gaur eguakitzan, 21:00etan,  
bakailau-jana soinujoleekin.  
Bihar, zapatua, 12etan ume-  
entzako jolasak eta auzoko  
soinujoleak; arratsaldean,  
4retan, mus txapelketa  
azkarra Jaolatzan elkartean  
(izen-ematea 2.000 pezeta  
bikoteko). Domekan,  
11etan, Meza Nagusia,  
12:30etan Xamatx eta  
Moises Aspiazu dantza tal-  
dearen saioa eta astelehe-  
nean, San Paulo eguna,  
eguerdian meza eta ondo-  
ren salda eta txorizoa.

► **San Bixente jaia** ospa-  
tuko da Angiozarko  
**Parteittin** domekan.  
Eguerdiko 12etan meza eta  
ondoren salda eta txorizoa.  
Jarraian Kataide, Deba  
Garaiko txakolinaren aur-  
tengo uztaren aurkezpena,  
Arrasateko trikitalariek alai-  
tuta.

## KINTADAK

► **1956an** jaiotako enafaria  
Txurigo jatetxean urtarrila-  
ren 30ean. Izen-ematea  
Txurigon bertan, 943 76  
48 63 zenbakian.

► **1973an** jaiotako en baz-  
karia otsailaren 6an  
Antxonin. Izen-ematea  
Antxonin (1.500 pezetako  
depositoa) otsailaren 1era  
arte.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### La mascara del Zorro

Eguakitzan: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen  
eguna: 19:30.

##### Gattaca

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Regreso al paraiso

Eguakitzan: 22:00.

##### Juegos salvajes

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Practicamente magia

Eguakitzan: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Juegos salvajes

Eguakitzan: 22:15.

Zapatua: 19:00, 22:15.

Domeka: 19:00, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### OÑATI. Santana

##### La niña de tus ojos

Eguakitzan: 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

#### Los amantes del Circulo Polar

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ELORRIO. Arriola

##### La niña de tus ojos

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

#### Mi estacion preferida

Eguena, zine-kluba: 20:15.

### LA MASCARA DEL ZORRO

**Zuzendaria:** Martin Campbell.

**Aktoreak:** Antonio Banderas,  
Anthony Hopkins, Catherine Zeta-  
Jones.

Zorro-aren gorabeherek seku-  
lako ikusmina piztu dute  
mundu osoko pantailetan,  
abenturazko zineak (eta Anto-  
nio Banderasek) jarraitzaile  
ugari dituela frogatuz. *Ale-  
jandro Murietak* (Banderas)  
*Don Diego de la Vegaren*  
(Hopkins) testigua hartu eta  
bere ohiko marka lagako du  
pobreen aurkako injustiziak  
salatzeko.



### GATTACA

**Zuzendaria:** Andrew Niccol.

**Aktoreak:** Ethan Hawke, Uma  
Thurman, Alan Arkin.

Jaiotzenetik, *Vincent*-ek (E-  
than Hawke) bihotzeko arazo-  
ak ditu eta zaila du bere ame-  
tsa betetzea, espaziora bidaia-  
tzea alegia. Gattacaren ga-  
raian genetikak bizimodua  
erabat aldatu du eta bakarrik  
ADN perfektua dutenek dauz-  
kate aukerak aurrera egiteko.  
Etorkizuneko gizartearen kon-  
trolla izugarria da...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Fiskala  
Lanekoa  
Kontablea  
Aseguruak

**AHOLKULARITZA**

TBG. Ander Alberdi Lete  
Zuzenbidean lizentziatua

Matriategi 36. behea. BERGARA  
Tf. 943 76 90 83 Faxes 943 76 92 04



**Era guztietako kargak**  
**Iraulkiak-Grua**

Matriategi 36, behea BERGARA  
Tf. 943 76 90 83. Faxes 943 76 92 04

## ANTXONI JATETXEA

Gure bezeroei:

eguazten eguerdian ere zabalik  
izango da urtarrilaren 27tik aurrera

Fraiskozuri 7. 943 76 20 40

**Udaletik lokal bat eskuratzeko helburuarekin, herriko gazte talde baten hainbat ekimenekin dio azkenaldian. Udaleko ordezkariekin bildu aurretik, gazteek euren proiektua herri mailan ezagutzera eman nahi dute.**

**G.** Gazteen lokalaren proiektu honek badu zerikusirik lehengo Gazte Asanbladarekin?

**E.** Ez. Orain dela sei urte Gaztetxea itxi zigutenetik beste lokal bat lortzeko egindako ahalegin guztiak eten zituen Udalak, Bergarako gazteria ordezkatzeko ez genuela esanez. Gazte Asanblada gaizki ikusita zegoen eta izenez aldatu eta ganorazko proiektu bat lantzeari ekin genion. Gure helburua Bergaran gazteontzako lokal bat izatea da, herriko kolektibo (musika taldeak, antzerki taldeak..., etabar) guztien bilgunea izateko asmoz. Herrian badago kultura mailan lanean ari den jendea baina ez dago lan hori zabaltzeko leku aproposik eta ezta kolektiboaren arteko loturarik, taldeak lokaletan banatuta daudelako. Gazteen lokala espazio gune handia izan behar da.


**G.** Udaleko ordezkariekin bildu zarete?

**E.** Ez. Lehenbizi, herri mailan, gazteen lokalaren gaiarekin jendea sentsibilizatu egin nahi dugu eta hori lortutakoan Udaletxera joango ginateke. Dagoeneko 1.500 firma inguru bildu ditugu eta, horrez gain, soziologo batek lokalaren inguruko inkesta bat egingo du gazteen artean. Bideo bat eta abesti bat ere landu ditugu jendeari gure proiektua aurkezteko. Udaletxera zuzendu baino lehen proiektu honen inguruan

## IÑIGO HERREROS

Gazteen lokalaren proiektuko kidea

*“Kolektiboaren bilgunea izango litzateke aldarrikatzen dugun gazteen lokala”*



Iñigo Herrerosen arabera, proiektuak herriko kolektiboaren laguntza jaso du.

sektore ezberdinetako jendea bildu nahi dugu.

**G.** Herriko kolektiboaren aldetik zelako erantzuna jaso duzue?

**E.** Kolektibo guztiek laguntzen gaituzte, besteak beste EHEk, Eibar-Gasteiz plataformak, Jarraik, Txapa Irratiak, Bergarako musika taldeek, Askek, Kukumak, Oihulari Klownek, Xama-

**“Lokalaren gaiarekin jendea sentsibilizatu egin nahi dugu eta maiatzerako txostena aurkeztuko dugu Udaletxean”**

tzek edo Zabalduk. Arazo nagusienetakoa finantzaketarena da. Errege bezperan ere txozna bat jarri genuen eta baimenik gabe jartzeagatik Udalak zigorra jarri nahi zigun... Maiatzera bitartean lan pila egin nahi dugu, ordurako Udaletxearen proiektuaren txostena aurkezteko; estatutuak, firma bilketa, inkesta, etabar.

**G.** Estatutuetan zer jasotzen da?

**E.** Barne funtzionamendua eta kanpo funtzionamendua zelakoak izatea nahi dugu. Batzar orokorra (hilean behin bilduko litzatekeena) eta iraunkorra (elkarte ezberdinekin izan beharrek harremanak dinamizatzeko) bereizten dira. Ez dugu nahi lehengo Gaztetxearen moduko izatea. Lokal berriaren gazteen intereserako ekimenak antolatuko lirateke, hala nola hitzaldiak, kontzertuak, ikastaroak..., etab. Era berean, talde ezberdinei tokia eskainiko zaie beraien bilerak egin eta euren dinamika ardurera eramateko. Txapa Irratiak ere bertatik emititzea nahiko genuke, orain daukaten lokala lotsagarria baita. Geurea lokal autogestionatua izatea nahi dugu, eta dugu goian Udaleko ordezkariarik izan nahi baina, herriko beste taldeek egitea duten antzera, Udalarekin bilerak izango genituzke.

**G.** Zenbat lagun ari zarete proiektu honetan?

**E.** 150 lagun inguru, kolektiboetako jendea eta gazteak zenbatuz gero. Inportanteena da proiektu honi guztiona izatea eta aurrerantzen irten arte ez gelditzea. Udaleko gazteen lokal bat beharrezkoa dela konturatu behar da. Zapaturiko BOTAK Zabalotegin duen lokalaren biltzen gara, 4retan, eta nahi duena etor daiteke. Lan oso dago egiteko. ■



# “Lanordu bat Akordioaren alde”, Kontseiluaren kanpainaren azkena

Batzen den diruarekin euskararen Plan Estrategikoa landuko da

Ofizialki “XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari!” kanpaina joan zen abenduaren 26an aldi berean Euskal Herriko bost estadio nagusiengan ospatu zen ekitaldi erraldoi ikusgarriarekin amaitu bazen ere, oraindik lanean dihardu Bergarako herri batzordeak. Une honetan eskuartearen darabilen egiteko nagusia “Lanordu bat Akordioaren alde” ekimena bultzatu eta bideratzea da.

Ekimen honekin, Hego Euskal Herriko langile guztiari deialdia luzatzen zaie euren lanordu baten diru balioa Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak landuko duen euskararen normalizaziorako Plan Estrategikoa aurrera ateratzeko eman dezaten. Egitasmoa sindikatuen bitartez bideratuko da hein handi batean. Halere, sei langile baino gutxiagoko enpresetara eta langile autonomoengana ezin izango dira heldu eta horiengana hurbiltzeko ardura, hasiera batean, herri batzordeak izango du.

**SINDIKATU GEHIENEK, BAI**  
Sindikatu gehienek baietza eman diote Kontseiluaren egitasmo honi. Ezetz borbila eman ez duen arren, oraingoz atxekimendua agertu ez duen bakarria UGT da.

“XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari!” kanpai-



Argazkian, joan zen abenduan Bergaran Bai Euskarari akordioa sinatu zutenek Udaletxean egindako ekitaldia.

na iazko urrian, azaroan eta abenduan burutu bazen ere, hauteskunde sindikalak zirela medio “Lanordu bat Akordioaren alde” egitasmoa atzeratzea erabaki zuen Kontseiluak. Salbuespen bakarra, MCC kooperatiba taldeko langileekin egin zen, beraiek hala eskatuta. MCC taldean dauden kooperatibetako langileek eman dute dagoeneko euren lanordu baten diru balioa akordioaren alde.

Esan behar da egitasmo honen bidez, langileei lanordu baten balioa ematea eskatzen bazaie, enpresariei ere, bere enpresako langileek eman duten adina eman dezaten eskatzen zaiela.

Bi dira ekintza honen helburu nagusiak: batetik,

euskarak lan-munduan duen garrantziaz ohartaraztea eta, bestetik euskara lanean egitea. Kontseiluak egin duen diagnostikoaren arabera, “euskarak lan munduan defizit nabarmena du. Euskara ikasi ikasten da, baina gero ez du ez erabilpenik ez balio handirik lanean”. Bestetik, Kontseiluak bultzatu duen akordio-prozesura eta, bereziki, Plan Estrategikoa prestatzera zuzenduko da oso-osorik ekimen honen bidez jasotako dirua.

## NOLA GAUZATUKO DA

Kontseiluak orri batzuk prestatu ditu langileei banatzeko. Bertan, Bai Euskarari akordioaren helburuak zehazten dira. Honekin bate-

ra, hainbat aurrezki kutxa eta banketxetako kontu korronte zenbakiak jasotzen dira. Bestalde, langilearen izen-deiturak, data eta sinadura jartzeko tokia ere badator orrialdearen azpialdean. Orriak otsaileko nominarekin batera banatuko zaizkie langileei.

## BALORAZIO POSITIBOA

Kontseiluak batzar orokorra egin zuen joan zen zapatuan Berriozarren. Bertan, egitasmo berri honen nondik-norakoak azaltzeaz gain, joan zen abenduaren 26an amaitu zen kanpainaren balorazioa egin zen. Diru kontuei dagokienez, 29 milioi pezetako irabaziak izan ditu orain arte kanpainak. **B**



Santiago Torres epailea, Bergarako epaitegiko titularra izan zen 90ko hamarkadako lehen urteetan.

ARIZ-ONDO

## Gil espetxeratu zuen epailea Bergarako epaitegian hasi zen

**Jesus Gil** Marbellako alkatea eta Atletico de Madrid-eko presidentea espetxera eraman duen Santiago Torres epailea Bergarako hirugarren epaitegiko epailea izan zen 90eko hamarkadako lehen urteetan. Santiago Torres Marbellako zazpigarren epaitegiko titularra da une honetan eta notizia izan da azken bi asteotan Marbellako alkatea espetxera eraman duelako.

Torres jauna 1989ko uztailetik 1991ko ekainera bitartean izan zen Bergarako epaitegian. Palentziarra jaioz, Valladoliden egin zituen ikasketak eta bere lehen destinoa Bergara izan zen. Bertan hiru urte eman ondoren, Bartzelona hiriburura destinatu zuten eta handik Marbellara.

Ariz-Ondo aldizkarian Emilio Vinuesa kazetariak 1991ko otsailean egindako

elkarrizketan, Baltasar Garzon bezalakoa izan nahiko lukeela aitortzen zuen: "niri, beste epaile askori moduan, Baltasar Garzon bezalakoa izatea gustatuko litzaidake. Bere izaera zintzo eta zuzena miresten dut". Santiago Torres 28 urteko epaile gaztea zen orduan. Ez dakigu bere ametsa egi bihurtuta ikusi duen, baina Garzonek bezala, pisuzko pertsoniak kartzelaratzea lortu du.

## Mariaren Lagundia, 200. urteurrenerako prestatzen

**Otsailaren 5ean** aurkeztuko dira Mariaren Lagundiaren 200. urteurrena ospatzeko 1999. urtean zehar antolatuko diren ekitaldiak.

Aurtengo apirilaren 6an betetzen dira 200 urte Mariaren Lagundiko lekaimeak Bergara etorri zirela eta hori ospatzeko era askotako ekitaldiak antolatuko dira otsailetik azarora bitartean. Otsailaren 2an kultur jarduerak

antolatuko dira ikastetxeko kideentzat eta 5ean, azken hilabeteetan berritzen aritu diren eliza inauguratuko da; horretaz gain, urteurreneko egitaraua aurkeztuko da.

Ekitaldian, besteak beste, Mari Karmen Garmendia Kultura Sailburua, Koruko Aizarna Kultura Diputatua eta Bergarako alkatea izango dira eta ikastetxeari buruzko diaporama eskainiko da.

## Deskontuak gazteei Udalak antolatzen dituen ekitaldietan

**Udalak** antolatzen dituen ekitaldi guztietan 15 eta 25 urte arteko gazteentzat deskontuak egitea onartu zuen Udalbatzak urteko azken bilera. Honenbestez, aurrerantzean, adin horretan dauden guztiei %25eko deskontuak aplikatuko zaizkie Udalak antolatzen dituen ekitaldietan. Orain arte Gazte Txarteldunei bakarrik egiten zitzaizkien deskontuak; hemendik aurrera, ez da derrigorrezkoa izango Gazte Txartela edukitzea.

## Gas instalazioen inguruko oharra herritarrentzat

**Gas instalazioak** ikuskatzen dituen enpresa batek bere zerbitzuak eskainiko ditu egun hauetan Bergarako hainbat etxebizitzatan. Hori dela eta, Udaltzaingoak herritarrei gogorazi nahi die ikuskaketa horiek norberak nahi duen instaladorearekin egin daitezkeela eta, beraz, ez dela beharrezkoa etxera doan enpresarekin egitea.

Ikuskaketa noiz egin behar den jakiteko gasaren banatzailearekin egotea gomendatzen dute udaltzainek. Denak, etxean eskaintzen diren zerbitzuren kontratatu aurretik, aurrekontua eskatzea gomendatzen dute.

# Jabier Retegi MCCra itzuli da lanera Jaurlaritzara laga ostean


## Kalitateaz arduratuko da Industria Sailburu ohia

**Aurreko legealdian** Industria Sailburu izan den Jabier Retegi bergararra Arrasateko kooperatiba taldera itzuli da lanera.

Antonio Cancelo MCCko Kontseilu Orokorreko Presidenteak deitu du kalitateaz eta kooperatibak ez diren enpresekin MCCk sinatuko dituen hitzarmenez arduratzeko.

Manolo Quevedo orain arte kalitateaz arduratu dena jubilatuta berri da eta bere ordeztatu da Industria Sailburu ohia.

Jabier Retegik 8 urte eman ditu Gasteizko Gobernuan, lehenengo industria Sailburuorde bezala Jon Azuaren agindupean eta azken lau urteotan Industria, Nekazaritza eta Arrantza sai-



Jabier Retegi MCCra itzuliko da Jaurlaritzan 8 urte eman ondoren.

leko arduradun bezala. Jabier Retegik aspaldi hartu zuen Jaurlaritzara lagatzeko erabakia. MCC taldearen goi karguei dagokienez, beste

aldaketa batzuk ekarri ditu urte berriak. Jabier Sotil bergararra, esaterako, Fagor Elekratresnak laga eta LKS-ra pasatu da.

## Bergaralan S.A. izango da industria poligonoa garatzeko elkarte

**Bergaralan S.A.** ize-na hartuko du Bergarako industria-poligonoa garatzeko, erabat Udalarren diruz osatutako sozietate anonimoak. Bere egitekoa industriarako eta mota guztietako zerbitzuetarako eraikinak kokatzeko lursailak sustatu, ordenatu, urbanizatu, erosi eta saltzea izango da, besteak beste. Hasierako kapitala 10 milioi pezetakoa izango da, legeak eskatzen duen gutxieneko kopurua delako. Kudeaketa lanetarako pertsona bat kontratatzea da Udalarren asmoa.

## Karmen Irizar antzuolarra aske

### Iazko martxoaren

19an Araba Komandoarekin lotura zuelakoan Guardia Zibilak atxilotu zuen Karmen Irizar antzuolarra aske laga zuten joan zen eguakitzean. Karmen Irizar Soto del Realeko espetxetik irten zen 2 milioi pezetako fidantza ordaindu ondoren eta une honetan epaiketaren zain dago. Zapatu arratsaldean heldu zen Antzuolara eta domekan ongi-etorria egin zitzaion Herriko plazan. Ongi-etorri ekitaldia oso jendetsua izan zen. Ohiko aureskua dantzatu eta hainbat opari eman zioten. Gaur ongi-etorri afaria egingo zaio pilotalekuan.

## Azoka plazaren aurreko barianteko hegalaria eusteko lanetan aritu dira egun hauetan

**Oxirondo** Azokaren aurrean saihesbideko hegalaria eusteko lanean aritu dira egun hauetan. Gogoratuko duzuen moduan, orain dela hilabete batzuk harriak jausi ziren espaloio gainera lubiziaz eraginda. Arriskua prebenitzeko, hesiak jarri zituzten oinezkoak bertatik ibili ez zitezten. Berriz ere lubiziaz gerta ez daitezen, lurra eusteko neurriak hartu dira. Lanok Gipuzkoako Diputazioaren kontura egin dira eta aurrekontua 2 milioi PTAkoa da.



Duela hilabete batzuk harriak jausi ziren espaloira lubiziaz eraginda.

# Berrigara

352 zenbakia.  
1999ko urtarrilaren 22a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Inaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetz:** Nerea Lazpiur.

**Testuen zuzenketak:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Iosu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Dani Laskurain.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien eragtzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaureritzako  
Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### TXARTELAK BALKOJETAN

Bergarako Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak esker-rrak eman nahi dizkizue Gabon hauetan zuen balkoietan eskubideak aldarrikatu dituzuen guztioi. Dena den, gure helburua Gabonetarako presoak gurekin izatea zen eta oraindik bete ez denez, kanpaina honekin jarraitzea animatzen zaituztegu, txartelak balkoietan jarriz preso guztiak ekarri arte.

Orain arte txartelak jartzera animatu ez zaretenoi esan nahi dizuegu Bergarako Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak nahiko lukeela Bergarako balkoi guztiak txartelez josita ikustea, zenbat eta etxe gehiagotan jarri, orduan eta gehiago nabaritu baina Euskal Herrian presoekin legea ez dela betetzen. Txartelak Arrano eta Pol-Pol tabernetan egongo dira salgai.

Begarako  
Euskal Presoak  
Euskal Herrira  
taldea

### BERRIGARA GIDA 99: ZUZENKETA


Joan zen astean banatu zen Berrigara Gida 99 telefonoen liburuxoan oker bat agertzen zen. Intereseko telefonotan, larrialdien sailean (7. orrialdea) hiru al baitariren telefonoak agertzen dira. Horieta batean, "Julio Etxeberria. Sabin Irastorza" agertzen da eta bi al baitari izan arren telefono bakarra agertzen da, Sabin Irastorzarena. Baina Julio Etxeberriarena ere agertu beharko litzateke eta oker batengatik ez da agertu. Beraz, zuzen horrela legoke: ALBAITARIA. Julio Etxeberria (943 76 43 29) eta ALBAITARIA. Sabin Irastorza (943 76 63 46).

Lerro hauen bitartez barkamenak eskatu nahi dizkiegu, bereziki, Julio Etxeberriari eta, era berean, gidaren erabil-tzaile guztiei.

Bestalde, gogorarazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzenoi, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan Kultur Etxean eskura dezakezuela. Horretaz gain, datorren urteko gidarako norbaitek zeozer zuzendu nahi badu, deitu dezala BERRIGARAra (943 76 03 97).

Berrigara

## tira biraka: unai azkarate



▀ atrebentzia ezpada

▀ bai, esan!

## Txakurrak Bergarako kaleak asko zikintzen dittuela uste dozu? Zein irtenbide du arazo honek?



Gertaeraren bat salatu edo txalotzeko, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### ZABOR-BILKETAREN MAITASUNA DELA ETA Maite Alberdik

deitu zuen BERRIGARARA martitzenean, bere ustez soluzioa behar duen gai baten inguruan bere ardura azaltzeko. Maite erdi-hasserre dago zabor-bilketa bi egunean behin egiten delako. Izan ere, astelehenean zaborra laga ondoren, eguaztenera arte ezin da zaborrik atera, eta oraindik okerrago asteburuetan: eguakitzean atera eta hurrengo astelehenera arteko zaborra norberaren etxean ahal den moduan pilatzen jaten da eta. Maitek kaleetan kontenedoreak ipintzea proposatzen du arazoari irtenbidea emate aldera, beira eta papeira uzteko kontenedoreak dauden bezala, gainontzeko zaborra ere non utzia izan dadin.



**Arantzazu Portu**

Askotan kalean joan eta tokatu izan jat txakurren kakekin topo egitea. Eroskitik Arranorainoko bidean asko egoten dira. Jabeak garbitu beharko leukela uste dot.



**Juan Lopez**

12 urtean txakurra izan dot eta txakurrak asko zikintzen dittue kaleak. Bergarako eta beste herri askotako kaleak oso zikinak dare. Obligaziñoa zikina jasotzea da.



**Gorka Martin**

Auzo batzuk oso zikinak dare eta kaleetan be zikin asko ikusten da. Ni neu asko kejatzen naiz. Txakurrak egindakoa jasotzeko obligaziñua egon beharko litzake.



**Imelda Iturbe**

Normalean egiten doten bidea Toki Ederretik kalera bittartekoa da eta kaka dexente egoten da. Hori batzen arduratu beharko lirake txakurren jabeak.



**Esperanza Carenas**

Bergaran txakur asko dagoela uste dut eta beraien beharrak egiteko ez dago lorategi gehiegi. Soluzioa lorategiak edo toki aproposak ipintzea izango litzateke.



**Antonio Gomez**

Nik txakurra daukat eta kale-garbitzailea naiz baita ere. Udalak berdeguneak jarri edo poltsak banatu beharko litzuzke. Askotan bes-teenak jasotzea tokatu zait.

▀ ikuspuntua: **mikel elkoroberezibar**

## Komunikabideak

Komunikabideei buruz asko hitz egin da eta hitz egiten da. Askorentzat laugarren boterea dira, baina azkenaldian lehenengo boterea bihurtzen ari diren susmoa daukat. Egunero ari gara komunikabideek ematen digutena irensten. Berezi-ki ikus-entzutekoak dira errezago heltzen zaizkigunak, banatzen duten mezua barnertzeko esfortzu gutxiago eskatzen baitute. Komunikabide erraldoi horiek dira zertaz hitz egin behar dugun markatzen dutenak eta kasu gehienetan jaramon egiten diegu. Hori argi eta garbi ari gara ikusten azkenengo urteetan eta batez ere azken hilabeteotan Euskal Herrian.



Lizarr-Garaziko Akordioaren ondoren elkarlanean aritu dira alderdi abertzaleak eta IU. Horren ondorioz, hainbat ekintza bateratu egin ahal izan dituzte: lehenengoa, Gabonetako

Bai Euskarari kanpainaren ekitaldi arrakastatsua, Lizarr-Garaziko Akordioak antolatu ez arren, sinatzaileek aktiboki parte hartu zutena. ETBk lan bikaina egin zuen, baina gainontzeko komunikabideek, TVE, Telecinco, Antena 3 eta Canal Plus-ek, kasu askotan aipatu ere ez zuten egin eta beste batzuek minutu bateko albiste tarte eman zioten 100.000 pertsonatik gora euskararen alde batu izanari. Beste batzuetan, euskara euren albigestietako protagonista negatiboa izan dutene-

an, zenbait ezinak dira eskaini dizkieten era guztietako erreportaiak. Ondorioz, Bai Euskarari kanpainaren berri Euskal Herrian bakarrik izan dugu eta estatu espainolean, euskara motxilan harriak sartuta ikasten dela uste izango dute askok eta askok.

Antzerakoa gertatu zen presoak Euskadira ekartzeko manifestazioarekin. Kasu honetan komunikabide espainolek manifestazioa eta Eibar-ko Guardia Zibilari egindako eraso maila berean jarri zituzten edo garrantzi handiagoa eman zioten bigarrenari. Komunikabide horiek bikain egin zuten euren lana eta berriz ere eurek markatu zuten zeri buruz hitz egin behar dugun. Halere, eskerrak euskalerritarrok garen modukoak garela eta horrela jarraitzen badugu izaten jarraituko dugula. **B**

■ asteko menua: **belatz kantina**

# Babarrunak



JOXEAN AZKARATE  
Belatz kantinakoa

## OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- Bertako babarrunak, kilo bat
- Tipula bat
- Azenario bat
- 2 porru
- Tomate 1
- Gatza
- Oliba olioa

### Osagarrietarako:

- Aza
- 4 odoloste
- 4 txorizo
- Piperminak

## PRESTAKETA

- Aurreko egunean baba gorria beratzen ipini ur hotzetan. Hurrengo goizean, babak xukatu eta lapiko egoki batean jarri (pixkat altua bada hobe) barazki guztiekin. Gatza eta oliba olio txorrotada bat gehitu eta ur hotzarekin bete babarrunak baino 3 hatz goragora arte.
- Irekiten eduki ordu pare batean eta noizean behin sikatu ez dadin ur hotza pixkanaka gehitu.
- Aparte, azak, odolosteak eta txorizoak, bakoitza lapiko batean egosten jarri. Babak egosita daudenean barazki guztiak atera eta irabiatu.
- Ondoren txinotik pasatu. Saltsa hau babarrunei gehituko diegu eta 10 minutuan sutan jarriko dugu gustua ondo hartu dezan. Probatu eta gatza falta bazaio berriz ere gehitu.
- Mahaira ateratzeko plater batean babarrunak eta bestean azak, odolosteak eta txorizoak ipiniko ditugu. Nahi duenak pipermin zatitxoak gehitu ditzake.

■ adituen esanetan

# Hirugarren kontenedorea

JOSE MARTIN GALLASTEGI, *Mankomunitateko zabor gaietarako arduraduna*

Tetrabrikak eta metal nahiz plastikozko ontziak batzeko hirugarren kontenedorea martxoan jarriko da Deba Garaiko herrietan. Hori kolorekoa izango da eta, hasiera batean, papera eta kartoia batzeko kontenedoreen ondoren jarriko da. Bergaran 32 kontenedore jarriko direla aurreikusita dago. Esan bezala, tetrabrikak, metalezko ontziak (janari nahiz edari latak) eta plastikozko poteak, botilak etabar batzeko erabiliko da hirugarren kontenedorea. Batutako materiala Legazpiko Berzik enpresara bidaliko da, bertan jasotakoaren sailkapena egiteko. Alde batetik tetrabrikak Valentziako transformazio

plantara eramango dira eta plastikozko ontziak, berriz, Legazpin bertan birziklatuko dira: garbitu, zatitu eta txikitu ondoren, plastikozko beste material batzuk sortzeko erabiliko dira. Azkenik, metalezko ontziak txatarratara bidaliko dira ziurrenik, beste erabilpenen bat emateko.

Kopuru zehatzik izan ez arren, gaur eguneko zabor poltsaren bolumenaren zati handia suposatzen dute aipatutako materialek. Hirugarren kontenedorea jartzean, zabor poltsa arintzeaz gain, material guztia birziklatzea lortuko da. Ea herritarren aldetik erantzun ona izaten duen kontenedore berriak. **B**

■ bergarako gordailutik

## AGINTE ON BATERAKO ARAUDIA (eta II)

Imanol Sorondo

**Z**oan zen astean ipinitakoan jarraituz, Moya eta Ortegaratar Joakin Inazio alkateak 1764.eko urtarrilean herriri emandako aginduak aipatuko ditugu:

14. Errotariek burnizko pisu zuzenak erabili behar dituzte eta ez harrizkoak; eraman ditzatela pisuak udaltxera bertakoekin neurriak adosteko.

17. Ez dadila inor sartu besteren ortuan barazkiak eta fruituak lapurtzera.

20. Bakoitzak bere etxeareta garbi dezala.

21. Errementariek jai egunetan ez dezatela lanik egin eguerdia arte, eta hori baimenarekin. Errementarien kaltetan ez dadila abererik sendatu edo odolgutxitu.

24. Iluntzeko agurmarien ondoren inork ez die bere alabei edo neskaeei etxetik irtetzen utzi behar; errekadunik egin behar badute, egunez egin ditzatela. Ordu horretatik aurrera bere etxetatik kanpo aurkitutakoek, ezkongabeak badira, espetxeko zigorra izango dute.

26. Haurdun aurkitzen diren ezkondu gabeko neskek, eta hori jendartean ezaguna denean, ezkonduie dagozkien buruzapiak eraman behar dituzte, eta ez neskenak.

27. Danbolinarekin jotzen diren dantzak ez daitezela egin ez San Lorentzoko enparantzan, ez eta herriko kaltetatik kanpora dauden tokietan ere. Inor ez dadila lehiari ausartu dantzaren buru izatera. Desoreka horiei erremediorik ez ipintzeagatik sortzen baitira eztabaidak, ezbeharrak eta hilketak.

29. Egurrak eta zurak herriari zori dizkiotenek 8 egunen barruan ordaindu behar dituzte.

30. Iluntzeko agurmarien ondoren ez ditzatela alondigatik edo beste nohahitik burnizko barrak etxeetara eraman linternaren edo kandelaren argirik gabe.

Azkargorta eta Aranatar Pedro, herriko idazkariak izenpetzen du agiria eta apaizen esku utzi zuten biztanle guztiei igandean adieraztea. **B**

## Danborrada Bergaran

Azken urteotan obizkoa biburtu da Bergarako ikastetxeetan **San Sebastian eguna** ospatzea. Eguaztenean ere danbor hotsak entzun abal izan genituen han eta bemen. Tradizioak agintzen duen moduan, haur bezkuntzako umeei sukaldari sonbrerua jantzi zuten eta gustora aritu ziren danborrak astintzen, bibote eta guzti. **Sarriegiren martxa** ondo baino bobeto jo zuten. Ez dakigu euren etxeetan gaueko 12ak arte danborradarekin jarraituko ote zuten...



## 1935ean jaiotakoen eguna domekan

Goiko argazkia beharbada erretratu zaharreen jartzekoa litzateke baina ez dira hainbeste urte igaro. Kontua da **1935. urtean jaiotako bergarrek** bazkaria izango dutela domekan, urtarrilak 24, Antxoni jatetxean. Aurretik, argazkia ateratzeko 14:00etan Frontoian bilduko dira. Goiko argazkia 1985ean ospatutako anaiarteko eguneko da. Orduan 50 urte egin zituzten eta gizonezkoak bakarrik bildu ziren. Domekan, berriz, 1935ean jaiotako emakumeak ere gonbidatuta daude. Kostatu zaigu argazkian agertzen diren guztiak zenbatzea baina 55 daudela apostu egingo genuke. **Regino Valleren** laguntzaz ia guztiak identifikatu ditugu.

**H**ara hor beraien izenak: Justo Agirre, Pedro Aperribai, Luis Lonbide, German Manzanal, Luis Irizar, Regino Valle, Nicolas Arregi, Santi Uribeberria, Jesus Igarza, Daniel Bengoa, Roman Iribecampos, Maximo Etxabe, Jose Maria Zenitagoia, Sabas Igartua, Jose Ignacio Madariaga, Jose Mari Alberdi, Miguel Larrañaga, Eladio Arando, Iñaki Arregi, Juan Garai, Vicente Albusua, Javier Lazpiur, Ignacio Irigoien, Luis Mari Garitano, Bienvenido Diaz, Felipe Unamuno, Sabin Ugarte, Vicente Vicente, Javier Azkarate, Juan Lamariano, Pedro Gallastegi, Iosu Lazpiur, Francisco Maure, Angel Castrillejo, Jose Luis Arevalillo, Jose Mari Santorcuato, Jesus Alfaro, Andres Ruiz, Roman Rueda, Javier Larrion, Martin Juaristi, Eladio Arando, Eusebio Mendizabal, Ignacio Oregi, Alberto Elkorobarrutia eta Iñaki Murgizu.

## BOLINTXO KIROLAK

Bolintxo Kiroletako  
Neguko Zozketako irabazlea  
Iñake Larrañaga izan da.

Udako Zozketarako  
txartelak datorren zapatutik (hilak 23)  
aurrerako erosketekin batera banatu-  
ko ditugu eta 1999ko uztailean

15ean zozketatuko da  
**30.000 pezeta**ko  
erosketa txartela.



# Adi!

Beharpenak hasi dira! Aukera handia forro polarretan.  
Zapatiletan %30etik gorako deskontua.

Ibargarai 10. 943 76 38 32



**BEDELKAR**en Gabonetako lehiaketan  
honako hauek jaso zituzten sariak  
erosketa-baletan:

1. Elisa Asenjo Zigurraga, 500.000 pta  
Zerbaki sariatua: 1.828  
Distribuciones Larrañagan eskuratua
2. Rosario Garitano, 300.000 pta  
Zerbaki sariatua: 122.811  
Marcón eskuratua
3. Mariasun Ortiz de Barron, 200.000 pta  
Zerbaki sariatua: 90.404  
Gaztelu ferreterian  
eskuratua

Saritutakoak eta  
bonoak banatu  
dituzten dendariak



## Zorionak denoi!





**Hauteskunde sindikalak egin dira azken lau hilabeteotan Euskal Autonomi Erkidegoan. Bergaran eta Antzuolako enpresetan ere langileek beraien ordezkariak aukeratu dituzte irailetik hona. Azken hauteskundeak orain lau urte egin ziren. Gaur egun ez dago lau urte zai egon beharrik enpresa batean sindikatuen ordezkariak aldatzeko.**

# Langileen hitza

Hauteskunde sindikalak burutu dira enpresa gehienetan


**S**indikatu nagusiek edo enpresa bateko langileen 1/3ak hala erabakiz gero, hauteskundeak edozein momentutan egin daitezke lan delegazioan beharrezko eskaera egin ondoren. Enpresa berriak sortzen direnean ere beste horrenbeste gertatzen da. Hori dela eta sindikatu bakoitzak lortzen duen ordezkariak portzentaiak ez dira lehen bezain finkoak, aldatuta txikiak izaten direlako bozketa berriak egiten diren bakoitzean. Zen-

baketa iraunkorrekoak dira gaur egungo hauteskunde sindikalak.

Lantegien multzo handienak lehenengo tendentziari jarraituta, sasoi berean egin ditu hauteskundeak eta irailetik abendura bitartean egin dira bozketak enpresa gehienetan. Hala ere, hainbat enpresatan ez da oraindik bozketarik egin, Tavesan, Algodoneran edo Torunsan adibidez. Bergarako eta Antzuolako enpresetan izandako emaitzen arabera, ELA sindikatua izan da

garaile. Bergaran 80 (%43,2) eta Antzuolan 9 (%45) ordezkari lortu ditu. LAB izan da bigarren indarra; Bergaran 62 ordezkari (%33,5) eta Antzuolan beste 8 (%40) izan ditu LABek oraingoz. UGTK 14 ordezkari Bergaran (%7,5) eta Antzuolan bakar bat (%5) ditu eta CC.OOK, berriz, 10 ordezkari Bergaran (%5,4) eta beste 2 Antzuolan (%10). Esker Sindikalak (ESK) bedertzitzi ordezkari izango ditu Bergaran (%4,8) baina oraingoz behintzat ez du

ELAk eta LABek gora egin dute Bergaran eta Antzuolan. Banaketaren ondoren Ezker Sindikalaren gorakada CC.OOren kaltetan izan da



1995eko hauteskondeekin konparatuz, Bergaran ordezkari gehiago izango dituzte sindikatuek. 159tik 185era igo da ordezkari kopurua

ordezkaritarik lortu Antzuolako enpresetan. Azkenik sindikatu gabeko zortzi ordezkari izango dira Bergarako enpresetan eta batez ere irakaskuntzan lanean ari den ESTEE-EILAS sindikatuak bi ordezkari lortu ditu Bergaran. Azken hauteskondeekin konparatuz, Bergaran ordezkari gehiago izango dituzte sindikatuek. Orduan 159 ordez-

kari aukeratu ziren eta orain kopuru hori 185era heldu da.

**BALORAZIOAK**

Xabier Larrañaga ELAko kidearen hitzetan, "oso balorazio positiboa egingen dugu. Zailtasun asko izan ditugu, eskualde honetan azken urteotan eman den langile belaunaldi aldaketa edo

ELA-LAB harremanak zenbait langileentzat susmagarri gertatzea adibidez. Hala ere, eragozpen guztiak gainditzeko gauza izan gara eta aurreko hauteskondeetako emaitzak hobetu ditugu. Orain negoziaketa kolektiboari begira jarri behar dugu. Ekintza honetan gure bidelagun naturala LAB izan beharko luke baina ikusteko dago".

**HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK ENPRESAZ-ENPRESA**

Enpresa	Langileak	Ordezkarri kopurua					Beste batzuk
		ELA	LAB	CC OO	UGT	ESK	
<b>BERGARA</b>							
Altos Hornos	310	8	4	1			
Aranzadi ikastola	74	1	4				
Geyser Gastech	126	2	2			2	3
Goiz Argi	42		3				
Iraundi	76	3	2				
Katea	54	1	3	1			
Lacor	77	2			2		1
Mariaren Lagundia	49		1				2
Mayc	486	6	4	1	2	4	
Metagra	69	1	4				
Narvaiza	99	3	1			1	
Tintes y Acabados de Vergara	121	6	1			1	1
Tornilleria Deba	58	2	1		2		
TTT	75	2		1	2		
Udala	123	2	4				
<b>ANTZUOLA</b>							
Elay Industrial	100	2	1	1	1		
Goiz Argi	42		3				
Seytra	59	3	2				



Bergarako eta Antzuolako enpresa gehienetan irailetik abendura bitartean egin dira sindikatuaren ordezkariak aukeratzeko bozketak. ARTXIBOA

Jose Luis Loidi "Rossli" LAB sindikatuko eskualdeko organizazio arduraduna da. LABek lortutako emaitzekin pozik dago; "gure erakundeak, portzentualki, eskualde mailan eta Bergara mailan igoera izan duen bakarra da. Bestalde, asko pozten gara ESK, hasi orduko, CC.OO parean jartzen delako. Eta azkenik, argi geratu da Antzuolako eta Bergarako langilegoak sindikalismo abertzalean sinisten duela. Ikusten da Lizarra-Garazi Akordioaren inguruan bildutako sindikatuak gero eta indar gehiago daukatela eta CC.OO eta UGT, aldiz, zokoratuta geratzen direla gure eskualdean".

Ezker Sindikala (ESK) CC.OO sindikatutik banatu zen joan zen urtean. Abel Maestre CC.OOko kidearen ustez ESK CC.OOtik banatu izanak izan du eraginik, batez ere Bergaran; "esan dai-teke banaketa hauteskunde bezperatan etorri zela eta egia da Bergaran indarra galdu dugula. Arrasaten ez da horrenbeste igarri banaketa. Adibidez Mayc bezalako enpresa batean ordezkari-tzarik ez gauen tailer txiki batzuetan delegaturen bat izatea lortu dugu. Deba Garaian, berriz, hasieran pentsa zite-keena baino gutxiago. Eta Euskal Auto-nomi Erkidegoan igoerarik nabarmene-na izan dugun sindikatua gara, bigar-ren indar sindikala izatera iritsiz".

Salvador Peña UGT sindikatuko eskualdeko arduradunak aurreko hautes-kundeekin konparatuz aldaketa nabar-menik ez dela izan diosku; "daturik az-pimarragarriena CC.OOren beherakada eta horren ondorioz ESKk izan duen gorakada litzateke. Besteok, berriz, berdintsu jarraitzen dugu, sindikatu ba-koitzak ondo baino hobeto daukalako definituta bere merkatua. Aurreko hau-teskundeetan baino 3 ordezkari gehia-

go izatea lortu dugu. Gipuzkoan, orain-dik enpresa askotan hauteskundeak egiteke daude eta nire kalkuluen ara-bera bi puntuko igoera lortu dezakegu oraindik. Eta Euskal Autonomi Erkide-goan ere CC.OOren aurretik jartzeko itxaropena daukagu. Azken batean, gu-re indarra enpresa ertainetan dago, be-reziki metal eta eraikuntza arloan eta horrelako enpresa askotan falta da hau-teskundeak egitea".

### GIPUZKOA ETA EAE

Gipuzkoako orainarteko emaitzei dagokienez, ELA eta LABen gehiengoa nabaria da; ELAk %44,18 eta LABek %24,41. UGT ez da %10era iristen Gi-puzkoan (%9,80) eta CC.OOk %15,11 lortu du. Euskal Autonomi Erkidegoan, berriz, ELA nagusi da Hiru probintzie-tan. LAB bigarrena da Gipuzkoan, UGT Araban eta CC.OO izan da bigarrena Bizkaian. ELAk, jokoan zeuden 15.634 ordezkarietatik, 6.281 ordezkari lortu ditu (%40,18). Aurreko hauteskudee-tan (1994an eta 95ean) %39,7 lortu zuen. Bigarren indar sindikala, CC.OO izan da, ordezkarien %17,46arekin (0,96 puntuko igoera). UGT sindika-tuak, berriz, %15,91ko ordezkari-tza lortu du, 0,33 puntuko jaitsiera izan oste-an. LABek %15,52ko ordezkari-tza izan du, azken hauteskundeekin konpara-tuz 0,10 puntuko igoera izan ondoren. Azkenik, sindikatu minoritario eta sin-dikatu gabeko ordezkarien tasa %10,92koa da, aurreko hauteskudee-tan %12,12koa izan zelarik. EAeko hau-teskundeen kasuan, aukeraturako orde-zkarien kopurua (15.634 guztira) 1990ekoa baino baxuagoa da (orduan 18.508 izan ziren) eta sindikatuaren ara-bera azken urteotan enplegu egituran izandako aldaketa da horren arrazoi nagusia. **13**

## EMAITZAK BERGARAN ETA ANTZUOLAN

		Ordezkariek	%
<b>ELA</b>	Bergara	<b>80</b>	43,2
	Antzuola	<b>9</b>	45
<b>LAB</b>	Bergara	<b>62</b>	33,5
	Antzuola	<b>8</b>	40
<b>CC OO</b>	Bergara	<b>10</b>	5,4
	Antzuola	<b>2</b>	10
<b>UGT</b>	Bergara	<b>14</b>	7,5
	Antzuola	<b>1</b>	5
<b>ESK</b>	Bergara	<b>9</b>	4,8
	Antzuola	-	-
<b>Sindikatu gabeak</b>	Bergara	<b>8</b>	4,3
	Antzuola	-	-
<b>Beste batzuk</b>	Bergara	<b>2</b>	1,08
	Antzuola	-	-
<b>GUZTIRA</b>	Bergara	<b>185</b>	100
	Antzuola	<b>20</b>	100

TAULETAKO DATUEN ITURRIA: ELA ETA LAB

## SINDIKATUEN EBOLUZIOA DEBA GARAIAN

	Urtea	Ordezkariek	%
<b>ELA</b>	1995	231	46,57
	1999	<b>235</b>	<b>43,93</b>
<b>LAB</b>	1995	124	25
	1999	<b>151</b>	<b>28,22</b>
<b>CC OO</b>	1995	72	14,52
	1999	<b>57</b>	<b>10,65</b>
<b>UGT</b>	1995	55	11,09
	1999	<b>55</b>	<b>10,28</b>



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN BARRUAN

- 09:00: Moskis-Komando Piperrak
- 10:00: La Juve-Patatus
- 12:00: Xurrupak-FAC
- 13:00: Buya-Agiñaspi

**La Juve**  
**FAC**  
**Agiñaspi**  
**Xurrupaka**

### ZAPATUAN KANPOAN

- 16:00: Guadalest-Bayer
- 17:00: Artusamak-Uve Bikoitza
- 18:00: Shaktale-Jauja OH Zerezos
- 19:00: Usoa-Tom Cat Argandolas

**Uve Bik.**  
**OH Zerezos**  
**Tom Cat**  
**Shaktale**

### DOMEKAN BARRUAN

- 09:00: Irubide Jatetxea-Agirrebeña
- 10:00: Ari Ari-Etengabe
- 11:00: Ufala-HHH
- 16:00: SLP-Pinturas Bergara
- 17:00: Urruxurtu-Matxakategi
- 18:00: Mo(ko)lotov-Igandekoak
- 19:00: Sirimiri Eri-Ezinleike
- 20:00: Amozkibar-Ion Autoak

**Ari Ari**  
**Ufala**  
**Etengabe**  
**Matxakat.**  
**Igandekoak**  
**Sirimiri Eri**  
**Ion Autoak**  
**Ezinleike**

### DOMEKAN KANPOAN

- 09:30: Errotagain-Mongatxurak
- 10:30: Arbe Kirolak-Txipiron
- 11:30: Bar Canalejas-Ortzi
- 16:00: Pagomendi-A Ze Flaxa Etxagi
- 17:00: Bildurbarek Opel/Lam-Azpeitxi

**Txipiron**  
**Ortzi**  
**Arbe**  
**Bildurbarek**  
**A Ze Flaxa**


## argi!

**Oharra:** Kiroldegian eta kalean jarritako karteletan, zapatuko partiduen ordutegia ez da zuzena. Partiduak BERRIGARAN agertzen diren orduetan jokatu dira.

### Puntu bakarra ere ez

Txapelketa aurrera doa eta dagoeneko 4 taldek puntu bakarra egitea ere ez dute lortu, eta beste 4 talde puntu bakarrarekin daude.

## jokoz kanpo



**JON ORTIZ ZARATE**  
**Tom Cat**  
**Argandolas**

**G.** Zenbat urte txapelketan?  
**E.** Tom Cat Argandolas taldearekin lehendabiziko urtea da. Aurreko urteetan Gazteakekin jokatzeko nuen.  
**G.** Antolaketa batzordean ere bazabiltza.  
**E.** Joan zen urtean hasi nintzen. Asteburuetako partiduen berri ematen saiatzen gara kalean kartelak ipiniaz e.a.  
**G.** Zein postutan jokatzeko duzu?  
**E.** Aurrean.  
**G.** Orain arte zenbat gol egin dituzun gogoratzen?  
**E.** Bai. Lau.  
**G.** Taldeko batz besteko adina?  
**E.** Ez dakit, 18tik hasi eta 25 urte dituztenak ere badaude.  
**G.** Batzordeak ipinitako arauei buruz zer uste duzu?  
**E.** Aldaketa gehiegi egon dira. Berriak ipini arren gainontzekoak berdin gelditu beharko ziren.  
**G.** Play-offetara heltzea espero duzue?  
**E.** Bai, baina aurkari gogorrek daude, Bayer eta Guadalest esaterako. Bestalde, talde zikinak ere badaude. Kasu honetan arau gogorrek erabili beharko liriateke hauen kontra. Guk jokatu genuen partidu batean, esaterako, istiluak izan ziren.

## gora eta behera



### Maila ona erakutsi dutenak

Komando Piperrak-ek maila ona erakutsi zuen Ari Ari-ri 5-3 irabaziz. Mo(ko)lotov-ek sekulako gol zaparrada egin zion orain postuko Amilotx-i eta FAC-ek ere orain arte indartsu ibili den Arbe taldeari irabazi zion. Orain, 2. postuan dago.



### Postuak jaitsi dituztenak

Azken jardunaldian talde batzuek jaitziak iragarri dute. Hauen artean, Mongatxurak taldea dugu. Bestalde, goialdeko zegoen Ari Ari, A Ze Flaxa Etxagi eta Errotagain taldeek galdu egin zuten.

## emaitzak

Amilotx-Mo(ko)lotov	2-0
HHH-Moskis	2-6
SLP-Buya	3-2
Ezinleike-Xurrupak	1-3
Pagomendi-Ortzi	1-1
Txipiron-Guadalest	2-3
Tom Cat Argandolas-Artusamak	0-4
Bildurbarek Opel/Lam-Mongatxurak	2-1
OH Zerezos-A Ze Flaxa Etxagi	0-0
Errotagain-Bar Canalejas	3-4
Shaktale-Azpeitxi Jatetxea	1-1
Bayer-Usoa	0-1
FAC-Arbe Kirolak	0-1
Uve Bikoitza-Sirimiri Eri	0-1
Patatus-Igandekoak	3-3
Etengabe-Patxaran Team	0-1
Komando Piperrak-Ari Ari	5-3
Matxakategi-Ufala	4-4
Agirrebeña Jatetxea-Urruxurtu	2-1
La Juve-Amozkibar	4-1
Pinturas Bergara-Ion Autoak	3-0

## sailkapenak

### 1. maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	25	12
2. Errotagain	23	12
3. Ortzi	20	12
4. A Ze Flaxa Etxagi	20	12
5. Pagomendi	19	11
6. Bildurbarek Opel/Lam	15	12
7. Bar Canalejas	13	11
8. Jauja OH Zerezos	12	12
9. Mongatxurak	11	12
10. Shaktale	7	12

### 2. maila

	P	J
1. Artusamak	9	3
2. Xurrupak	7	3
3. FAC	7	3
4. Bayer	6	3
5. Arbe Kirolak	6	3
6. Tom Cat Argandolas	4	3
7. Sirimiri Eri	3	3
8. Ezinleike	3	3
9. Uve Bikoitza	3	3
10. Guadalest	3	3
11. Txipiron	1	3
12. Usoa	0	3

### 3. maila

	P	J
1. Jakina Patxaran Team	9	3
2. Moskis	9	3
3. Ari Ari	6	3
4. Urruxurtu	4	2
5. Agirrebeña Jatetxea	4	3
6. Etengabe	3	2
7. Irubide Jatetxea	3	2
8. Komando Piperrak	3	3
9. Ufala	1	3
10. Matxakategi	1	3
11. HHH	0	3

### 4. maila

	P	J
1. Mo(ko)lotov	9	3
2. La Juve	9	3
3. Amozkibar	6	3
4. Igandekoak	4	4
5. Pinturas Bergara	4	3
6. SLP	3	3
7. Buya	3	3
8. Patatus	3	3
9. Ion Autoak	1	0
10. Agiñaspi	0	0
11. Amilotx	0	0

## kronikak


**Futbola  
Bergararrak  
2. postuan  
tinko**

Berriz ere emaitza bikaina lortu zuten Zelaia eta Jauregiren mutilek. Joan zen domekan Zumarragako taldearen kontra jokatu zuten. Partidu osoan zehar nagusitu zirela esan daiteke. Bikain ibili arren lehen gola egitea kostatu zitzaizen bergarrei baina azkenean gola aldageletara joan aurretik egin zuten.

Bigarren zatia hasiaz bat, hasierako maila bera erakutsi eta horrela sartu zituzten gainontzeko golak. Taldeko golegileak Iñaki Mujika eta Mikel Otero izan ziren. Iñakik hiru gol egin zituen eta Mikelek bat. Une honetan Zelaiak zuzentzen dituen jubenil mailako mutilak sailkapenean bigarren daude.


**Eskubaloia  
Azken  
momentuko  
miraria**

Iraundik jokatuak partidua azken segunduetan erabaki zen Bergarako alde. Partiduko lehen 15 minutuetan Iraundik abantaila lortu zuen 4-11ko emaitzarekin baina poliki-poliki zarratarrak gerturatu egin ziren. 13-14ko emaitzarekin joan ziren aldageletara. Bigarren zatian bergarrek bost goleko abantailari eutsi zioten arbitroa Bergarako jokalaria zigortzen hasi zen arte.

Zigorren ondorioz lau eta bost jokalaria besterik ez ziren aritu eta horrek abantaila eman zien etxekoei. Azken 5 segunduetan, markagailua 27-27 zegoenean, Garikoitz Arregik azken gola egin zuen eta garaipena Bergarakoentzat izan zen.


**Saskibaloia  
Garaipen  
erreza  
Donostian**

Kadete mailako mutilek 55-74 irabazi zuten Donostian Askatuak taldearen kontra. Gipuzkoako hiriburura taldeko sei jokalaria besterik ez ziren joan eta, hala ere, bergarrek partidua aurrera atera zuten. Hasiera-hasieratik defentsa lanak ondo egin zituzten. Sei jokalaria besterik ez egotean pertsonalak egiteko arriskuan jausteko beldurrez bazeuden ere, ez zuten arazorik izan.

Lehendabiziko zatian berdintasuna izan zen nagusi baina bigarrean Angel Ortizen mutilek aurrehartu zieten donostiarrei. Bestalde, Mikel Larrañaga izan zen partiduan zehar nabarmendu zen jokalaria, saskiratze gehien eginez.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Bergara-Real Union**

Preferente maila

Zapatua. 16:00. Agorrosin

**Bergara-Lagun Onak**

Lehen mailako kadeteak

Domeka. 10:30. Ipintza

**Bergara-Mariaren Bihotza**

Bigarren mailako kadeteak

Domeka. 12:00. Ipintza

### PILOTA

**Bergara-Oñati**

Kadete, jubenil

eta senior mailak

Eguakitz. 19:30. Pilotalekuan

### PROFESIONALAK

### Euskal Herriko

**I. Txapelketa**

- Berasaluze VIII eta Beloki

Unanue eta Taberna

**Binaka**

- Agirre eta Balerdi

Errandonea II eta Rai

**Banaka**

Nalda III-Pinedo

### SASKIBALOIA

**Bergara-Iraurgi**

Kadete mailako mutilak

Domeka. 10:30. M. Lagundia

### ESKUBALOIA

**Bergara -Goierri**

Kadete mailako mutilak

Zapatua. 16:15. Labegaraieta

**Iraundi Bergara-Legazpia**

Senior mailako mutilak

Zapatua. 17.45. Labegaraieta

**ALVARO GALLASTEGI / Pilotari izandakoa**

## "Uberako txapela lortzeko prest gaude"

14 urte zituela pilota zaletasuna piztu zitzaion eta 1974. urtean pilota profesionalan hasi zen. Zazpi urtean zehar hainbat txapelketa jokatu zituen eta orain beterranoak Uberan jokatzeko ari diren txapelketa estra-ofiziala jokatzeko ari da.

**G.** Garai onak igaro zenituen profesional moduan?

**E.** Herri askotara joaten ginen pilotan egitera. Partiduak eta gero gure parrandak ere izaten genituen. Oso garai onak izan ziren haiek. 31 urterekin jokatzeari utzi nion Bartzelonara bizitzera joan behar izan nuelako.

**G.** Zertan aldatu da pilota azken urte hauetan?

**E.** Gaur egun Bergarak bizi duen garaia azken urteetan izan den hoberena da. Une honetan profesional oso onak ditugu herrian. Orduan ere gaur egungo ez-ulertzeak izaten ziren. Telebistak indar handia dauka eta eragin ezberdinak sortzen ditu orain.

**G.** Zer dela eta Uberako txapelketa?

**E.** Beteranoen txapelketa amaitu eta ondoren egin genuen bazkarian antolatuta genuen. Oso giro ona dago gure artean. Partidu ostean afaria ere egiten dugu garai haiek gogoratzeke. Zubillaga eta ni neu profesionalak izandakoak gara eta gainontzeko ia gehienak afizio-

natu mailan ibilitakoak.

**G.** Faboritorik?

**E.** Atrebentzia bada ere, finala, Zubillaga eta Aldairen kontra jokatu dugulakoan nago.

**G.** Nolako bikotea daukazu?

**E.** Zorionez gaztea. Lehendabiziko partidua irabazi egin genuen.



## San Antoneko krosetako emaitzak

**Domekan**, urtero San Anton auzoan ospatzen diren jaietako kroseta egin zen. Lehen probari eguandik 12:00etan eman zitzaion hasiera Zubi Berri jatetxearen parean. Bertara ingururatu ziren 28 antxintxinkalariek, 7 kilometrotako ibilbidea egin behar izan zuten, Mekolaldera bi itzuli eginez. Nagusien mailan, Aitor Erañak eskuratu zuen saria. Gazte mailako mutiletan, Ander Iturriagaitia izan zen garaile. Gazte mailako nesketan, berriz, Gema Orobengoa izan zen lehen postuan eta beteroen mailan, Jose Luis Fernandezek eskuratu zuten saria.

## Eski irteera Formigalera

**Pol Pol** Mendizale taldeak Formigalera eski irteera antolatu du urtariraren 30 eta 31erako. Prezioa: 13.000 edo 14.000 PTA. Informazio gehiago: 943 76 48 51 telefonoan astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara edo Pol Poleko bulegoetan.



Fernando Markina, Bergarako ordezkarria.

## Gipuzkoako Arku Tiraketa Txapelketa Bergaran

Gipuzkoako Arku tiraketa federazioak antolatuta eta Bergarako Udala eta Legazpiko Luma taldeak babestuta, hilaren 31an Gipuzkoako arku tiraketaren txapelketa jokatu da Bergarako kiroldegian barruan. Goizeko 10:00 izango da eta Bergarako ordezkariak, Fernando Markina eta Jose Luis Arietaleanizbeas-koa izango dira. Azken hauek, Legazpiko Luma taldean daude.

## ESKOLA KIROLA. Karteldegia

### ESKUBALOIA

Benjamin maila:  
**10:00:** M. Lagundia E-San Martin A  
**11:00:** Aranzadi 6-San Martin B  
**12:00:** Aranzadi 3-Aranzadi 4  
**10:00:** Antzuola B-Aranzadi 2

**11:00:** Aranzadi 5-M Lagundia B  
**12:00:** M. Lagundia A-M Lagundia B  
*Zapatuan, Aranzadi Ikastolan*  
 Atsedena Antzuola A  
 Infantil mailako mutilak:  
**11:00:** Aranzadi- Eibar  
*Zapatuan, Labegaraletan*  
 Infantil mailako neskak:  
**09:15:** Txantxi D.B.H1A-Aranzadi  
*Zapatuan, Olaiturrin. Oñati.*

### FUTBOLA

Infantil mailako mutilak:  
**10:30:** M. Lagundia-Almen  
*Zapatuan, Ipintzan*

**11:30:** S. FCO. Xabier-Ipintza DBH  
*Zapatuan, Musakolako Kiroldegian*  
 Infantil mailako neskak:  
**09:15:** Almen-Aranzadi  
*Zapatuan, Almenen*

### SASKIBALOIA

Alebin mailako neskak:  
**09:30:** San Martin-Antzuola A  
**12:30:** M. Lagundia-Elgeta  
**12:30:** Aranzadi 15-Aranzadi 14  
*Zapatuan, M. Lagundian*  
 Alebin mailako mutilak:  
**09:30:** Antzuola-Aranzadi 9  
**10:30:** Aranzadi 12-Aranzadi 8  
**10:30:** San Martin-Aranzadi 10  
**11:30:** Aranzadi 11-M Lagundia A  
**11:30:** Elgeta-M Lagundia B  
*Zapatuan, M. Lagundian*  
 Infantil mailako mutilak:  
**11:00:** Aranzadi-Txantxi 2A  
*Zapatuan, M Lagundian*

## Muruamendiaraz eta Errasti San Antoneko sari nagusirik gabe

### Eguakitzean

Muruamendiaraz eta Errastik Elgoibarko finala 22-7 galdu zuten San Antoneko sari nagusirik gabe eta Iparragirretaren kontra. Ikerrek adierazi zuenez "partidu hasieran nahiko parekatuta joan ginen baina 8-7 eguakitzera iritsi ginenean partiduak eskutik ihes egin zizun". Ikerrek Mungia-ko txapelketa jokatu du otsailaren 5ean Jaiak rekin eta asteburuan Deba Arroko txapelketa hasiko du.

## PILI GISASOLA



Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

Zurradero 2 beheak.  
 ☎ 943 76 58 83

## AGOITZ

### Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25  
 BERGARA  
 Tf.: 939 84 57 47



## DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
**Teleforo Aranzadi 2 beheak**  
**943 76 21 80 / 943 76 06 37**

## Gallastegi

### Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85



## Rezola

*Ipintza baserria, Astigarraga*

Telefonoa: 943 55 66 37.

Apirilera arte zabalik.

Bertako janaria.

Arkumea burduntzian enkarguz.

100 lagunentzako lekua, eserita.

# txotxetik edan sagardotegi onenetan



## Zabala

*Garagartza baserria, Aduna*

Telefonoa: 943 69 07 74.

Urtarriletik maiatzera arte zabalik.

Zapatu eta domeka eguerdietan  
enkarguz bakarrik.

Bertako janaria.

150 lagunentzako lekua.



## Elutxeta

*Elutxeta baserria, Urnieta*

Telefonoa: 943 55 69 81.

Apirilera arte zabalik.

Aste barruan egun osoan txotxetik.

Astelehenetan itxita.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria.

200 lagunentzako lekua,

eserita nahiz zutik.



## Otatza

*Otatza baserria, Zerain*

Telefonoa: 943 80 17 57.

Apirilera arte zabalik.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria nahiz norberak ekarria.

170 lagunentzako lekua, eserita nahiz zutik.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigaraz ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Osintxun pisua salgai. 943 76 49 74.

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Osintxun pisua salgai. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua San Antonion. 943 76 56 20.

Pisu amueblatua Basar-ten. 943 76 32 90.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrietan pisua salgai. 943 76 47 86.

Bolu. 943 76 01 80.

Basarten pisua salgai. 943 76 32 91.

Iraburun pisua salgai. 943 76 30 72.

Aranerreka. 943 76 50 79.

S. Lorentzo. 943 76 48 39.

Masterreka. 943 76 17 49 (gauetz)

Apartamentua Arrurri-  
gagan. Igogailuarekin. Ber-  
ri-berria. 619 802 606.

### 1. ETXEBIZITZAK

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

### 2. GARAJEAK

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

### 3. LOKALAK

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

### 4. LANA

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

### 5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

### 6. IBILGAILUAK

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

### 7. ANIMALIAK

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

### 8. DENETARIK

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

### 9. HARREMANAK

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Garajea alokatuko nuke.  
943 76 05 17.

## 3. LOKALAK

### ERRENTAN EMATEKO

100 m<sup>2</sup>ko lokala aloka-  
tzen da Kruz Gallaste-  
gin. 943 76 11 89.

Taberna-jatebidea alo-  
kairuan. 943 76 41 71 /  
76 37 80 (gauetz).

## 4. LANA

### ESKAITZAK

Emakumea etxaz etxe  
plantatzeko eskaintze-  
da. 943 76 26 73.

Neskak haurrak zaindu  
edo denda/bulego bate-  
an lan egingo luke.  
943 76 26 82/76 57 34.

Neskak, goizez, haurrak  
zaindu edo etxeko lanak  
943 76 46 07.

Esperientziadun neska  
edadetuak zainduko lu-  
tuzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lan eta-  
rako prest. 943 76 35 33.

Erizain titulatuak gaitu-  
ak, edadetuak edo haur-  
rrak zainduko lituzke.  
943 76 37 99.

### ERRENTAN EMATEKO

Apartamentu amuebla-  
tua Espolioan.  
943 76 55 26.

### ERRENTAN HARTZEKO

Bi neska pisu bat har-  
tuko genuke alokairuan  
Bolun: 943 76 56 03.

Pisua hartuko genuke  
alokairuan: 945 46 58 36.

### ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua

konpartitzeko Bergaran.  
943 76 71 93.

Etxe konpartituan gela  
bat hartuko nuke.  
943 76 21 48.

Aretxabeletako pisu ba-  
tean logelak alokairuan.  
Sukaldea erabiltzeko  
aukera. 943 79 05 26.

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Artzamendi. 943 76 06 25.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Garaje bikoitza S. Lo-  
rentzon: 943 76 58 00.

Garajea saldu edo alo-  
katzen da. 943 76 40 03.

Aranerreka. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

Garajea saldu edo alo-  
katzen da. 943 76 40 03.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

Ibargarai. 943 15 15 81.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 27 22.

Ibargarain salgai edo  
alokairuan. 943 76 20 07.

### ERRENTAN EMATEKO

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Poligonoa. 943 76 21 12.

### ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan  
hartuko nuke Zubietan.  
943 76 47 50 (Jabi).

# EDEL TAPIZDENDA

*Etxerako artikuluetan  
aukerarik haundiena  
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**


Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu persiana-motarik  
egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

## POL-POL

### Taberna

☎ 943 76 07 78



# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

# ONENA TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

## ARREGUI, E.M.

# ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK  
SUKALDEKO ARMAIRUAK  
HORMA ARMAIRUAK  
ATEAK, eta abar  
TARIMAK-PARKETAK  
NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK  
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38



Etxeko lanak egin edo  
umeak zainduko nituzke  
egun erdiz. 943 76 25 81.

Neskek etxeko edo su-  
kaldari lanak egingo li-  
tuzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska  
batek, goizez, haurrak  
zaindu edota etxeko la-  
nak egingo lituzke.  
943 76 72 31.

**ESKAERAK**

Umeak zaindu eta etxe-  
ko lanetarako pertsona  
behar da. 943 76 22 50  
(21:00etatik aurrera).

Bere kabuz moldatzen  
den edadetu bat zain-  
tzeke pertsona behar da  
astebukaeretan.  
943 76 72 25.

**IRAKASKUNTZA**

**ESKAITZAK**

OHO eta BBB klaseak.  
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.  
943 76 25 79 (Nuria).

Lizentziatuak enpresari-  
tza lehen mailako ma-  
tematika klaseak ematen  
ditu. 943 76 32 31.

Majisteritzako ikasleak

OHOko klaseak ematen  
ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mai-  
lara arte. 943 76 32 93.

Lizentziatuak italiara  
klaseak eman edo itzul-  
penak egingo lituzke.  
943 76 65 24.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Ford Scort 1100. SS-U.  
Bolante deportiboa  
opari. 125.000 pezeta.  
943 76 39 57 (Julian).

Peugeot 306 (SS-AV)  
salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera  
onean. 943 71 44 45.

Citroen BX egoera one-  
an. 943 76 29 79 (Ion).

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea  
salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1500 diese-  
la. SS-AT. 943 78 71 12.

Alfa 33 QV (BI-AM) .  
Ekipatua. 943 76 07 50.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Pedigree oneko artzai

aleman txakurkumeak  
salgai. 609 40 75 07.

Boxer txakurkumeak.  
Txertatuak. Pedigree-  
arekin. 943 85 32 44.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Sega Saturn bideo kon-  
tsolea salgai. 6 joku.  
943 76 40 00 (Mikel).

Peugeot 309 kotxeo  
aluminiozko hagonak  
salgai. 930 687 635.

Eskiko materiala salgai:  
Dynastar taula, Tyrolia  
lotzekoak, Koflach bo-  
tak (44-45 zka.) eta bas-  
toiak. 943 76 25 54.

"Gernika"ren naruzko  
koadroa salgai (100x50  
cm). Egin berria. Intere-  
satuek Arrano tabernan  
dute ikusgai.

Super Nintendo (2  
mando eta 3 joku).  
Deitu 94 658 31 87  
telefonora.

Bueltako tresilloa (tapi-  
zatura). Ia berria.  
Deitu 943 76 12 86  
telefonora.

Pentium-multimedia or-  
denagailua, inpresora  
eta programak.

907 34 46 58.

Bi oheko gazte logela.  
943 78 25 85.

"Mendiz" bizikleta.  
Shinmano 600.  
Deitu 943 76 38 79  
telefonora.

Armairu klasikoa salgai.  
943 76 10 94.

Pentium 120 ordenagai-  
tua salgai. 943 76 28 34.

Ohe artikulatua. 90  
zm.koa. 943 76 20 90.

Botoidun akordeoia sal-  
gai. 943 76 32 95.

Kotxeo bi gurpil berri  
155/70 haguekin eta  
orekatuak. 6.500  
pta.943 76 32 31 (Iñaki).

Jaunartzeko bi traje  
(marineroa eta neskatil-  
larena) saltzen ditut.  
Berri-berriak.  
943 76 14 70.

**9. HARREMANAK**

**DEIAK**

Egunero, 14:00-15:00ak  
aldera, Bergaratik Zu-  
marragara kotxez joa-  
ten den norbaitekin  
kontaktatu nahi nuke.  
Gastuak erdibana.  
943 76 17 62 (Miren).



**Langai**  
Euskal Lan Zerbitzua

**MEDIKU  
ESTETIZISTA**  
Gasteiz. 15967/1

**INFORMATIKA  
TEKNIKARIAK**  
Madrid. 15797/2

**ZORU JARTZAILEA**

Lasrte-Oria. 15679/5

**METROLOJI  
TEKNIKARIA**  
Tolosaldea. 15581/1

**INKESTARIAK**  
Bilbo. 15964/0

**DENDARI-  
LAGUNTZAILEA**  
Getxo. 15923/6

**PROGRAMATZAILEA**  
Araba. 157898/2

**CNC LANGILEA**  
Lakuntza. 14696/6

**MANTENIMENDU  
ARDURADUNA**  
Ibaizabal. 15887/3

**IGELTSEROAK, 2**  
Bilbo. 15859/2

**DOITZAILE  
MEKANIKARIA**  
Ibai ezkeraldea.  
15828/1

**OFSET  
INPRIMATZAILEA**  
Bilbo. 15706/5

**ENKUADERNAZIO  
MAKINAREN  
ERABILTZAILEA**  
Bilbo. 15705/3

**ADMINISTRARI  
LAGUNTZAILEA**  
Ibaizabal. 14985/3

**LH ELEKTRIKOA**  
Daba Behea. 15490/6

**Lan eskaintza hauetakoren bat  
interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**GURIDI altzariak**

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**ileapaindegia  
eder gela**

**disdira**

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

**ARRANO**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA  
Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.  
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK**



**AGENTEA-DELEGATUA**

**Iraegi Aseguruak**

Ramon Maria Lili 6, beheka 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonaok: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxes: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00

Dani Laskurain. Pintorea

## *"Pintatzeko, elementu txikiez baliatzen naiz, barrutik kanpora espresatu nahian"*

**Dani Laskurain (Bergara, 1966) pintoreak azken aldian landutako arte lanak ikusgai ditu egun hauetan Nahikari tabernan. Arte Ederretan lizentziatua da eta pintura eta grabatuen arloa landu izan du batik bat.**

**G.** Dagoeneko bi urte pasa dira, Bergaran azken aldiz erakutsi zenuenetik.

**E.** Bai, azkena 1996an antolatu nuen Kultur Etxean. Orduan ere pinturak eta grabatuak erakutsi nituen, baina formato handiagokoak ziren. Nahikariko paretan ezin dira margo-lan handiak eskegi, espazioa ez delako oso handia.

**G.** Eta ordutik ez duzu beste inon erakutsi?

**E.** Bai, iaz Legazpin.

**G.** Tabernetan erakusketak egitearen aldekoa zara?

**E.** Nire ustez ez dira toki egokienak eta niri, behintzat, ez zait larregi gustatzen tabernetan erakustea. Nahikarin orain dela urte asko erakutsi nuen, baina toki berezia da eta, gainera, maila handiko artista askok erakutsi du bertan. Bestalde, Bergaran ez dago erakusketak egiteko toki egokirik, Kultur Etxea bera ere ez da oso aproposa.

**G.** Zer ikus dezakegu Nahikarin?

**E.** Alde batetik, 12 koadroz osatutako bilduma bat, iaz Legazpin erakutsi nuen. Beste koadroak berri samarrak dira, udatik hona egindakoak gehienak. Erakusketan hiru bilduma dau-

de: lehenengoa, aipatutako 12 koadroz osatutako bilduma, iaz Legazpin erakutsitakoa; bigarrena, lau grabatuk osatzen dute eta hirugarrena beste hiru koadrok, azken hauek besteak baino handiagoak dira. Guztira 19 margo-lan dira eta guztietan grabatua eta pintura erabili ditut. Lehenengo, oihalaren gainean grabatua egiten dut eta, gero, honen gainetik margotzen dut. Era guztieta-ko pinturak erabiltzen ditut: akrilikoak, akuarelak, pastelak, spray-ak... Koadroak egiteko, kotoizko oihalak erabiltzen ditut.

**G.** Erakusketa hau orain egiten ari zarenen erakusgarri da?

**E.** Baietz esango nuke. Halere, gizaki formekin marrazki ugari egiten ari naiz; ikertzen ari naiz, zerbait topatu nahian, baina gauzak

ez dauzkat oso seguru eta nahiago dut lanok jendearen aurrean ez erakustea.

**G.** Ondo saltzen al da?

**E.** Era honetako margoak saltzea zaila izaten da. Lan figuratiboak hobeto barneratzen ditu jendeak eta, horregatik, errazago erosten ditu. Kontu honetan gauzak ez dira aldatu. Zinean edo musikan aditu gehiago dago eta lan konbentzionaletatik urruntzen diren espresio hauetako produktuak errazago sal-

*"Gizaki formekin marrazki ugari egiten ari naiz; ikertzen ari naiz, zerbait topatu nahian, baina gauzak ez dauzkat argi"*

tzen dira; aldiz, pinturan ez da horrela gertatzen eta jendeak, gehienetan, betikora jotzen du. Beharbada artisten errua da, artea herriarengana hurbiltzeko behar beste ez dugulako egiten, ez dakit... Erakunde ofizialek-eta gehiago inbertitzen dute, baina kaleko jendeak ez du arte-lanik erosten jeneralean.

**G.** Beraz, zail samarra da artetik bizitzea.

**E.** Bai, baina artearen inguruan beti dago bizitzeko lain ateratzeko aukera: pintura eta marrazki klaseak, lehiaketak, logotipoak, enkarguak...

**G.** Pintura eta marrazki klaseak ematen dituzu?

**E.** Arrasateko Kultur Etxean aritu nintzen eta, bestalde, Zangotza eta Txantreako eskoletan ere bai. Oso esperientzia abe-



Giza eskubideen aldarrikapenaren 50. urteurrenerako, iazko azaroan Gasteizen prestatutako mural baten aurrean.

rasgarriak dira, batez ere Arrasatekoa, jendea ikastera doalako eta ez inork behar-tuta; erakustez gain, zuk zeuk ere ikasten duzu.

**G.** Zerbait espresatu nahi duzu arte-lanekin?

**E.** Elementu txikiez baliatzen naiz pintatzerakoan. Esaterako, zelulen edo birusen formak erabiltzen ditut. Inguruan ditugunak barneratu beharrean, barrutik kanpora espresatu nahian. Bestalde, formekin eta koloreekin jolasten dut. Pinturarekin disfrutatu egiten dut eta horrela den bitartean pintatzen jarraituko dut.

**G.** Guggenheim kritikatu izan dute artista batzuek, bertakoek ezin dituztelako euren lanak erakutsi. Zer deritzozu horri?

**E.** Nazioarte mailan eza-gunak diren eta aitortuak izan diren artista euskaldunek erakutsi dute bertan. Baina Guggenheim ez da kultur etxe bat.

**G.** Beart-eko diruzaina zaitugu. Nola dago une honetan Bolun zabaldu nahi duzuen arte gunea?

**E.** Aurtengo Udal aurrekontuetan aurreikusita dago diru zati bat horretarako eta proiektua egina dago. Lanak noiz hasiko diren ez dakit. Egitasmo ambizioso da eta uste dut beharrezkoa dela herriarentzat. Boluko arte gunea bailara edo herrialde osorako erreferentia izan daiteke.

**G.** Gustoko duzun artista baten izena emaguzu.

**E.** David Hockney gustatzen zait. "Nahi dudana pintatzen dut, nahi dudanean eta nahi dudan tokian" zioen berak eta bat nator horrekin. Estatu Batuetako *pop-art*-arekin harreman oso hestuak ditu. Bere presio artistikoa oso freskoa eta ausarta da, lotsagabea batzuetan, eta hori gustatzen zait. **B**

## BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA



Aurkezle lanetan, aste honetan ere Izaro Aperribai arituko da.

# Hik Galdeu taldea sailkapen-buru, lehen jardunaldia jokatu ondoren

**Joan zen eguakitzean jokatu zen "Bergara ezagutzen" lehiaketaren lehen jardunaldia. Mariaren Lagundiko Jotapurtu eta Eztakit eta Aranzadi Ikastolako Hik Galdeu taldeak aritu ziren lehian. Azken hau nagusitu zen eta bera da sailkapen nagusiko liderra.**

Gaur, eguakitz, jokatuko da bigarren jardunaldia. Eli, Zerok eta Gotxus taldeek neurtuko dituzte indarrak. Datorren eguakitzean, berriz, Petu Petuan, Katamixartsua eta Errstiklas taldeak lehiatuko dira elkarren aurka. Hiru jardunaldi hauek jokatu ondoren, puntu gutxien lortzen dituzten hiru taldeak kanpoan geratuko dira eta beste seirak bigarren faserako sailkatuko dira.

Joan zen asteko jardunaldiari dagokionez, esan dezagun, lehiaketa saio entretenigarria gertau zela, jokuan parte hartu zute-

nentzat ezezik, Kartzela Zaharrean bildu ziren ikusleentzat ere bai. Lehen zatian, Bergarako euskara, geografia, natura, ekonomia, kultura, historia, artea eta kirolari buruzko galderak erantzun behar izan zituzten hiru taldeek.

Bakoitzari 15 galdera egin zitzaizkion eta Eztakit taldeko neskak ibili ziren finen, 117 puntu lortu baitzituzten. Bigarren, Hik Galdeu geratu zen 101 punturekin eta hiru-garren, Jotapurtu (98). Proba grafikoan, berriz, Hik Galdeuk 48 puntu lortu zituen, Eztakit-ek 25 eta Jotapurtuk 15. Azkenik, kanpoko jokuan, Hik Galdeu eta Jotapurtu taldeek hogeina puntu lortu zituzten eta Eztakit-ek batere ez. Azken honetakoek Unzeta Jauregiaren aurrean dagoen eskolako idazkariarengana joan eta pegatina bat hartu behar zuten, baina Mariaren Lagundira joan ziren eta idazkaritzan inor ez zegoela ikusita Kartzelara Zaharrera itzuli ziren pegatina barik.

### SAILKAPENA

1. Hik Galdeu. 169 puntu
2. Eztakit. 142 puntu
3. Jotapurtu. 133 puntu

### BIGARREN JARDUNALDIA

- Eli** (DBH 4, Aranzadi ikastola)  
**Zerok** (DBH 4, Aranzadi ikastola)  
**Gotxus** (2 HSOL, Ipintza institutua)

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Adierazitako zera. 2. Hiltzailea. Bokala. 3. Enara. Zakur. Nork, pluralean. 4. Gar. Etor zaitezte. 5. Lurrari buelta emateko lanabesa. Da, haiei. 6. Kapitala banatuta dagoen zati bakoitza. Momentu. 7. Röntgen. Niri. Moduak. 8. ... egina, total egina. Pinu mota. Musika nota. 9. Neguko janzki. Zezen zikiratu. 10. Potasioa. Arratsaldea.

**Goitik behera**

1. Kantariak. 2. Atsekabeak. Kontsonante errepikatua. 3. Garoa. Bizkaian, izeba. 4. Gaixoen zaindari. Kontsonante bikoitza. 5. Musika nota. Bokala. Hegazti mota. 6. Zurgina. Alderdi karlista. 7. Eroa. Erbioa. Sufrea. 8. Haur hizkeran, musu. Seguru. Idi, hitz elkarketan. 9. Bokala. Etena. 10. Nekadura. Gaia.

**Soluzioa**

10. Neka. Eskua  
9. E. Etenaldi.  
7. Zorra Er. S. 8. Pa. Zitur. It.  
3. Ha. A. Ollar. 6. Artoza. EKA.  
3. Ha. Bekoa. 4. Ertzain. Hic.  
1. Ahetaria. 2. Doluak. Mn.  
Goitik behera  
3. Aroak. Idi. 10. K. Arrastia.  
7. Er. Erak. 8. Ink. Ler. La.  
5. Iria. Zate. 6. Akzioa. Une.  
2. Erak. Or. Ek. 4. Su. Zatozte.  
1. Ahetzaren. 2. Borrera. E.  
Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberezibar

**Bergarako zein auzotan dago iturri hau?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Belatz** kantuan izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Rosa Maria Muñoz**entzat izan da. Mekolalde jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Rosa Mariari! Galderen erantzun zuzenak hauek zirent: Bonofotoa: **Zuburruti (edo Zuurti)**  
Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

lzena-deitura: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



**Kantina**

Gorla mendatea  
Tf. 943 58 50 23

**Jardunek eguakitzean abian jarritako "Bergara ezagutzen" lehiaketan aurkezle lanak egingo ditu Izaro Aperribaik. Hainbat ofiziotan (sukaldari, goxogile, igeltsero...) aritu ondoren, gaur egun Galvanotecnia y Derivados enpresan ari da.**

# Izaro Aperribai

**Bergara ondo ezagutzen duzu?**

Nahi beste ez...

**Bergarako pertsonaia historiko bat?**

Telesforo Monzon.

**Herriko monumentu bat?**

Santa Marina eta San Pedroko parrokiak.

**Herriko txokorik gustokoena?**

Bideberri.

**Bergarak daukan gauzarik onena?**

Santa Marinako erretaula.

**Eta txarrena?**

Kultura mailan eskaintza gutxi dagoela.

**Gustoko esaera zahar bat?**

"Gogoko lekuan aldaparik ez".

**Ikasle garaian ikasle ona zinen?**

Ez.

**Zer izan nahi zenuen txikitan?**

Astronomia.

**Telebistako lehiaketa bat?**

Lehengo "El tiempo es oro".

**Telebista eta irratiko aurkezle bana?**

Anne Igaritburu eta Roberto Moso.

**Eta ikusi ezin duzun bat?**

Iñigo Lejarza, Boris eta horrelako sasi-aurkezleak.

**Irratira deitzeko ohitura daukazu...**

Bai, Radio Euskadiko hainbat saiotara edo ETBko "Bakarrik"era deitu izan dut.

**Mc Cartney ala Lennon?**

Bakarrik John Lennon, baina biak batera hobeto.

**The Beatles-en diskorik onena?**

"Revolver".

**Erositako azken CDa?**

Sublime taldearen bat.

**Filme bat?**

"2001: una odisea en el espacio".

**Irakurritako azken liburua?**

Goethe-ren "Las desventuras del joven Werther" irakurtzen dihardut.

**Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**

Atzeko txistea.

**Gustoko janari bat?**

Arroz esnea.

**Eta gustatzen ez zaizun bat?**

Azalorea.

**Zenbat ordu egiten duzu lo?**

Gutxi. Erreleboka ari naiz lanean...

**Zenbat diru daramazu poltsikoan?**

95.015 pezeta.

**Zela ba hainbeste?**

Oraintxe atera dut kajerotik...

**Mania bat?**

Lehenbizi ezkerreko zapatila janzte.

**Gustoko jantzi bat?**

Kamisetak.


**Bidaia bat nora egingo zenuke?**

Estatu Batuetara joateko asmoa daukat.

**Astebukaerarako plan on bat?**

Zapatu goizean mendira joan eta gauean

sagardotegi batean afaldu. **B**



## ZUBIAURRE

aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atekak.
- Neurria egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztiak arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.

Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73



## LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## iRUDI

Erlojudenda  
Bitxitategia

Ibargarai 2  
943 6 51 65



## KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behe ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19



## Alaves-Athletic, 1956

Alaves-ek eta Athletic-ek 1956an jokatu zuten derbyan ateratako argazkia dugu hau. Argazki historikoa beraz. Partidua apirilaren 15ean zen jokatzekoa eta argazkia orduan ateratakoa da, baina futbol zelaira jende larregi sartu zelako bertan behera geratu zen eta hurrengo egunean jokatu behar izan zen.

Orduko kronikek diotenez, lagatakoa baino sarrera gehiago saldu zituzten eta 20.000 bat lagun sartu ziren Mendizorrotzan.

Partidua, esan bezala, apirilaren 16an jokatu zen azkenik eta Athletic-ek 0-3 irabazi zion

Glorioso-ri, Marcaidak, Gainzak eta Uribek sartutako golei esker. Denboraldi hartan Liga eta Kopako txapeldun izan zen Athletic eta Alaves berriz, 2. mailara jaitsi zen. Joan zen domekan neurtu zituzten indarrak, 43 urte geroago, Mendizorrotzan Alaves-ek eta Athletic-ek. Oraingoan ere zuri-gorriak nagusitu ziren.

Honako hauek dira argazkikoak: Nartxi Berrigistain, Jesus Mari Eguren eta Pedro Garcia.

Argazkia: Jesus Mari Eguren

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituztu, zatoz!



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

## merezi dute

### Aldatu zaitez MAPFREera

### Azkartu



### itzazu zure bonifikazioak

**Orain** zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako**.

**Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin**, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean**.



## MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

## Bergarako Udal Euskaltegia

# MATRIKULALDIA ZABALIK

Alfabetatze, euskalduntze eta EGA ikastaroak (otsaila-ekaina)  
Plazak dauden taldeetan integratzeko

### IZENA EMATEKO EPEA

Urtarrilaren 18tik 29ra.  
16 urtez gorakoendako

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-12:30  
Arratsaldez: 14:30-19:00




**Bekatzte-sistema  
eta diru-laguntzak dauzkagu!**

### BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13 • BERGARA • Tf. 943 76 44 53 • Posta elektronikoa: [berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

**Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



**6** URTEKO  
GARANTIA

**FAGOR**

**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.